

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXIX.

edizioa

2 0 1 7



ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXIX. edizioa

2 0 1 7

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

KAHLOMEDIA S. L.

Inprimatzailea:

CALIMA S.L.

Lege Gordailua: BI-805-2017

Liburu honek Bilkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Zorionak XXIX. edizio honetan parte hartu duzuen 968 neska-mutiko guztiei. Parte hartzaile guztiek sormen lana egin duzue ipuinak idatzi aurretik: zeri buruz idatzi pentsatu, zergatik idatzi, idazterakoan ideiak antolatu eta hizkera txukuna erabili... Idatzi duzuen ipuin bakoitzean zuen zatitxo bat dago, mundua sentitu eta ikusteko modua islatzen duen argitxoa. Ikuskera hori, umezaron hainbaten imajinazioarekin lotuta dagoena, helduok baliagarri, eta sarri beharrezko, izaten dugu eguneroko bizitzako arazoei irtenbidea bilatu ahal izateko. Zorionak, beraz, parte hartzaile guztiei zuen ekarpenengatik.

Eta gaur batzuk Bilboko Udaleko Arabiar Areto honetara deituak izan zarete, saridun zarete. Seguruenik festa giroko arratsalde eguzkitsu hau beti izango duzue gogoan. Eta gogoratu bizitza ez dela ipuina eta benetako pertsonen istorioak ikasiaz, ahaleginaz eta lan eginaz idazten direla eta sormena eta imajinazio-lana zeregin horretan bidaia-lagun ezin hobeak direla.

Juan María Aburto
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hamaseian arratsaldeko bost eta erdietan batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXIX. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 968 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. KOLORE GABEKO OSTADARRA
Amaya Salgado Huidobro
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. KOLORERIK GABEKO MUNDUA
Iria Mateo Ferreira
Ntra. Sra. de Begoña LBHIP
3. BEÑAT KONTRAMUTIKO SINESGOGORRA
Peio Elorriaga Legarreta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. NIRE TXIKITAKO ABENTURA
Peio Rodriguez Diego
Felix Serrano HLHI
2. POZIK BIZI NAIZ!
Maider Belloso Espallargas
Kirikiño Ikastola HLBHIP
3. AITOR NIRE LAGUNA? NOLA EZ!
Iraide Domingo Fernandez
Artxandape Ikastola HLBHIP

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. BIZITZA BERRIA
Beñat Apraiz Perez de Mendiola
Begoñazpi Ikastola HLBHIP
2. EZINEZKOTASUNERA BIDAIA
Leire Aresti Guijo
Begoñazpi Ikastola HLBHIP
3. ZER ARRAIO DIRA IZARRAK?
Naia Fernández Perez
Miguel de Unamuno BHI

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. ZEIN POLITA DEN ITSASADARRA
Irati Orio Lezama
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. ISILDUTAKO HITZAK
Aintzane Alzola Aparicio
Artxandape Ikastola HLBHIP
3. ITXAROPENA
Maialen Garay Benítez
Artxandape Ikastola HLBHIP

ARGITARAGARRIAK

A **Kategoria:**

ARKATZ MAGIKOA, Aritz Gonzalez de Betolaza Arsuaga, Artxandape Ikastola HLBHIP
UNTXIA ETA ZIZAREA, June Piqué Castilla, Pagasarribide HLHI
MARTERA JOAN ZEN ZIENTZIALARIA, Asier Castaño Bustamante, Kirikiño Ikastola HLBHIP

B **Kategoria:**

SENTIMENDUAK TXONTXONGILOEKIN, Ahmed Mabchour Mehdi, Ángeles Custodios HLBHIP
AMETS HARRIGARRIA, Aritz Saavedra Martinez, Karmelo Ikastola HLHI
GARAZIREN SEKRETUA, Irati Portela Mendiolagoitia, Karmelo Ikastola HLHI

C **Kategoria:**

AMETSA, Oier Ortega Tejjido, Gabriel Aresti BHI
HEGAZTIEN IRAULTZA, Naroa Vigiola Unzueta, Ikasbide HLBHIP
2.044 KILOMETRO, Garazi Oñate Zarraga, Solokoetxe BHI

D **Kategoria:**

NIRE ISTORIAOA, Lorena Gonzalez Martinez, Ikasbide HLBHIP
BERANDU OTE DA?, Nerea Sobrino Alonso, Artxandape Ikastola HLBHIP

Eta batzarra bukatutzat eman da, Bilbon, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hamaseiko
arratsaldeko seiak eta hamarreen.

Koldo Narbaiza Olaskoaga, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea *Igone Etxebarria, epaimahaikidea*

Irune Berro, epaimahaikidea *Irati Malatsetxebarria, epaimahaikidea*

Juan Ramon Madariaga, epaimahaikidea *Txani Rodriguez, epaimahaikidea*

Luis Gutierrez, epaimahaikidea *Pedro Alberdi, epaimahaikidea*

Goizalde Landabaso, epaimahaikidea

Begoña Idigoras, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



KOLORE GABEKO OSTADARRA

Amaya Salgado Huidobro,
Artxandape Ikastola HLBHIP

Behin batean, bazen bere familiarekin bizi zen Leire izeneko neska polit bat. Bere kolore kuttunena gorria zen. Jantzi guztiak gorriak zituen.

Egun batean, kolore gabeko ostadarra ikusi zuen. Kotxera igo eta koloreen bila joan zen. Bere GPS berrian kolore **GORRIA** bilatu zuen, eta... Zas! Mundu arraro batean sartu zen: mundu gorrian! Geroago giltza gorri bat aurkitu zuen eta giltzan begizta gorri bat. “Mundu honetan ez dira existitzen ez hiesa, ez drogak” ipintzen zuen. Gero, horma batean “giltza HEMEN sartu” ipintzen zuen. Leirek giltza sartu zuen eta bat-batean berriro bere kotxean zegoen.

15 minutu pasatu eta gero, bere GPSan kolore **LARANJA** ipini zuen eta berriro... Zas! Mundu laranjan zegoen baina laranja-laranja. Laranja fruta zegoen leku guztietatik! Giltza aurkitu eta oraingoan “Mundu laranjan ez dago arrazakeriarik. Pertsonak ez ditugu bereizten azalaren koloreagatik, etorri diren lekuagatik, erlijioagatik edo hizkuntzarengatik” ipintzen zuen. Eta bere lekuan sartu zuen.

Beste 15 minutu eta gero, GPSan **HORIA** ipini zuen... Zas! Mundu horian zegoen!!! Baina oraingoan limoiak, eguzkiak... zeuden. Giltzan “Hemen ez dago haurtzaroko minbizia” ipintzen zuen. Giltza sartu eta berriro kotxera.

Geroago **BERDEA** ipini zuen eta... Zas! Mundu berdera!!! Berdea mundu gogokoena zen berarentzat zeren zuhaitzak, loreak... zeuden. Giltzan “Mundu honetan ingurumena asko zaintzen dugu. Beira, papera, plastikoa... birziklatzen ditugu eta gure fabrikek ez dute kutsatzen” ipintzen zuen. Giltza bere lekuan sartu zuen.

Berdea eta gero, urdina, eta orduan GPSan **URDINA** ipini zuen eta... Zas! Beste mundu batera joan zen baina orain ura, zerua... zeuden. Oraingoan, giltzan “Mundu honetan inork ez du inor hiltzen desberdin pentsatzeagatik” ipintzen zuen.

Eta azkenez, **MOREA** GPSan jarri zuen. Oraingoan bere etxeko gauza more guztiak zeuden. Orduan, norbait giltza morea lapurtzen ikusi zuen eta horregatik etxera itzuli zen. Etxera itzuli zenean amari kontatu nahi izan zion, baina pentsatu zuen hobeto zela ez esatea inori.

Hurrengo egunean bere nebarekin txarto portatu zen eta haren logela atondu behar izan zuen. Logela txukuntzen zegoela, giltza morea aurkitu zuen! Honetan “Mundu honetan ez dago genero indarkeriarik. Nesken eta mutilen artean ondo portatzen gara” jartzen zuen. Berriro kotxera igo, mundu morera joan, eta giltza sartu egin zuen.

Etxera itzuli zenean, OSTADARREAN kolore guztiak zeuden eta bat-batean ostadarrak hitz egin zuen esanez: “Eskerrik asko bizitza emateagatik. Gainera ez daukat **hiesa gaitzik**, ez dago **arrazakeriarik**, ez daukat **hautzaroko minbizirik**, ondo zaintzen dut **ingurumena**, ez dago **terrorismorik**, ez eta genero indarkeriarik ere. Eskerrik asko, Leire!”

Ostadarrak eskatu zion sekretuan izateko bien artean pasatu zena, bestela telebistari deituko ziotela eta abar eta abar... edo agian ez ziotela sinetsiko eta, beraz, barre egingo zutela.

Mundua hobetzeko balio duten 6 koloreak.

GORRIA, **LARANJA**, **HORIA**, **BERDEA**, **URDINA** eta **MOREA**.

Eta hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan, eta irten dadila munduko bazter guztietan.



KOLORERIK GABE MUNDUA



Iria Mateo Ferreiro,
Ntra. Sra. de Begoña LBHIP



Bazen behin kolorerik gabeko hiri bat. Kutsaduraren erruz gauzen koloreak urtu egiten ziren. Hori lehenago gertatu zen. Orain dena grisa delako, inork ez du gogoratzen zer gertatu zen.

Ainarak, nire auzokoak, paisaia grisak margotzen pasatzen du egun osoa, leihotik ikusten den paisaia grisa delako. Ainararentzat mundua beti izan da grisa. Bere gurasoek oraindik ez diote kontatu zer gertatu zen, nahiz eta bederatzi urte

izan. Nik pentsatzen dut egun batean uholde mundial bat egongo dela zaborraren-kin, eta egun horretan mundua amaituko dela.

Eskoletan ere debekatuta daude koloreak. Orain bakarrik erosten dute kuxka bat hamar margo grisekin, zuri bat eta beltz bat. Zorionez, zuria oraindik bada-go eta espero dut ez desagertzea beste koloreak bezala. Beno, batzuetan alkateak uzten digu zapatila urdinak eramaten.

Nire gurasoek koloreen istorioa kontatu zidaten eta kontatu zidatenetik, aurrezten egon nintzen logela bat erosteko. Logela horretan, inork atea ez zabal-tzeko, gako bat ipini nuen. Eta horrela, alkateak ez zekien logelan horma bat baso bezala margotuta nuela. Horma horrek kolore argiak zituen: belarraren berdea, eguzkiaren horia, oreinen marroia eta aintziren urdin argia.

Egun batean, Ainar nire gela ikustera gonbidatu nuen. Etorri zenean lilu-ratuta geratu zen. Eta galdetu zidan:

—Nola deitzen dira kolore hauek eta nondik atera dituzu?

—Beno —esan nion— koloreak ezagutzen ditut nire gurasoek munduak koloreak zituenean egindako koadro bat erakutsi zidatelako, eta horrela gauzak bere koloreekin ikusten dira. Logela hau eroste-ko eta hemen margozte-ko aurrezten egon naiz.

Baina bat-batean, Ainarari bonbilla piztu zitzaion. Kanpora joan eta kaleak garbitu ahal genituela esan zidan, ea munduko gauza guztiei kolorea itzuli ahal zi-tzaien.

—Ez! —esan nion ikaratuta— orain bagoaz, alkatea konturatu egingo da, eta nire gela ezkutua ez da izango sekretua. Baina gauean bai joan gaitzke.

Eta horrela izan zen. Gauean, guztiak lo-tan zeudela, garbitzeko belaki batekin, zabor poltsa batekin eta kamuflaje arropa-rekin kanpora irten ginen.

Kaletik isil-isilik genbiltzanean, Ainarak xuxurlatu zidan:

—Inoiz ez dut arropa berderik jantzi.

—Ba, benetan, oso ondo geratzen zaizu— esan nion hari begiratzuz—. Beno, zuhaitz horrekin hasiko gara.

Eta biok latak kentzen eta ingurua belakiarekin garbitzen hasi ginen. Bat-batean, lohidura marroi bat ikusi genuen... pixka bat igurtzi genuen... eta zuhaitzek lehen zuten kolorea ikusi zen. Eta horrela gertatu zen gauza guztiekin



Baina azkena garbitzen genbiltzala, ilargia, etxeko argiak pizten hasi ziren. Ainara eta biok ilargia bizkor igurtzi genuen eta bere jatorrizko kolorea hartzen hasi zen.

Eguna zela konturatu ginen. Gizon bat leihotik agertu zen eta oihukatu zuen:

—Aupa! Munduak bere kolorea berreskuratu du neska hauei esker!

Orduan hiri osoa leihotatik agertu zen eta “zorionekoak” oihukatzen hasi zen. Alkatea haserretu egin zen baina konformatu behar izan zen, hiri osoak koloreak nahi zituelako.

Harrezkero, jendeak ez du zaborra kaleetatik botatzen, dena paperontzira joaten delako.

Urte batzuk pasatu dira eta alkatea mundu koloredunarekin sorginduta dago. Beti darama jantzi urdina gorbata gorriarekin. Ainara eta ni lagun minak gara eta une hartatik aurrera Ainarak koloredun paisaiak margozen ditu.

BEÑAT KONTRAMUTIKO SINESGOGORRA

Peio Elorriaga Legarreta,
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin Beñat izeneko mutikoa. 7 urte zituen eta bere guraso eta lagunen ustez oso sinesgogorra zen. Baten batek kondaira bat kontatzen zionean, berak esaten zuen:

—Hori ez da egia! Asmatu egin duzu!

Hainbestetan ezezkoa esaten zuen, ikastolan denek Beñat deitu beharrean, kontramutikoa deitzen ziotela.



Behin andereñok, Boga-Boga marinelaren gaia azaltzen zegoenean, haxe kontatu zien ikasleei:

—Badakizue Juan Sebastian Elkano oso esploratzaile eta nabigatzaile ona izan zela? Eta badakizue munduari lehenengo bira eman ziola, lurra esferikoa zela

egiaztatuz? Eta bere bidaian, itsaso sakonean, uharte asko aurkitu zituela?

Bat-batean, beti bezala, Beñatek eskua altxatu zuen eta haxe esan zuen:

—Andereño, andereño, hori ez da egia. Urrunean itsas sakona ageri de-
nean ez dago amaierarik, ezta uharterik ere. Nire herriko hondartzara noanean,
argi ikusten da itsasoa ez dela inoiz bukatzen, infinitua dela.

Eta andereñok esan zion:

—Beñat, berriro ere! Noizbait nik esaten dudana sinestu egin beharko
duzu, ezta?




Aldi berean klaseko kide guztiak barrezka hasi ziren. Orduan Beñatek ko-
munera joateko baimena eskatu zuen. Momentu hori aprobetxatuz, klaseko ki-
deek andereñori Beñati bere burugogorkeria kentzeko zerbait egin behar zela
proposatu zioten.

Andereñok poz-pozik esan zuen:

—Ideia bikaina! Hiruhilabeteko honetan irteera bat egin behar dugunez,
Bermeora joango gara. Txalupa bat alokatuko dugu, patroï eta guzti.

Denak harrituta eta poz-pozik zeuden andereñori entzuten adi-adi.



Oihuka Aitziberrek, klaseko neska batek, ideia bat bota zuen:

—Zergatik ez goaz denak marinelez jantzita eta Beñati nabigatzaile mozo-
rra aurkitzen diogu?

—Hori da! —esan zuten denek batera.

Eta berehala isildu ziren Beñat komunitik bueltatu zelako.

Azkenean, espero zuten eguna heldu zen. LH2-ko ikasleak bere andereño-rekin autobusez heldu ziren Bermeora. Portuan txalupa bat zegoen beraien zain eta Felix patroiak arropa mordoarekin itxaroten zien hauek jantzi zitzaten. Beñat ikaratuta zegoen. Bere arropa desberdina zen. —Zergatik? pentsatu zuen bere barnerako—, baina ez zuen ezer esan.

Felix patroiak Bermeoko historia azaldu zien eta urrunera begiratzeko eskatu zien, non ez zen ura besterik ikusten. Itsaso urdin zabalean barrena kilometroak eta kilometroak sartu ziren eta dena zen ura. Baina, Felixek esan zien itsasoan zehar uhinez uhin nabigatuz gero, ziur lehorrera iritsiko zirela lehenago edo geroago.

Eta bat-batean, irla bat ikusi zuten, Izaro irla.


Hura zen poza!

Denak oihuka hasi ziren:

—Lurra, lurra, lurra...

Horrela Beñat konturatu zen andereñok esandakoa sinestu egin behar zuela.

Zorionez, ordutik aurrera, ez zioten gehiagotan kontramutiko deituko Beñati.



ARKATZ MAGIKOA

Aritz Gonzalez de Betolaza Arsuaga,
Artxandape Ikastola HLBHIP

Bazen behin Aitor izeneko mutikoa. Aitorrek 9 urte zituen eta oso altua zen. Argala eta bere ilea beltz-beltza zen. Beti kamiseta eta bakeroak zeramatzan. Klasera poz-pozik joaten zen, baina ez zitzaion gustatzen eskolako lanak egitea.

Gau batean, amets polita eduki zuen arkatz magiko batekin. Hurrengo egunean, etxerako lanak egiten hasterakoan, mahai gainean zegoen arkatza, bera bakarrik, lanak egiten hasi zen eta konturatu zen arkatz magikoa zela, bere amestetan bezala. Aitor pozik jarri zen, horrela ez zuen gehiago lanik egingo.

Egunak pasatu ondoren Aitorrek jarraitzen zuen etxerako lanak egin gabe; Dena arkatz magikoak egiten zuen. Bat-batean, egun batean, Aitor konturatu zen bere lagunak berak baino gehiago zekitela. Orduan Aitorrek erabaki zuen arkatz magikoa gehiago ez erabiltzea eta egun horretatik aurrera etxerako lanak bera bakarrik hasi zen egiten, laguntzarik gabe.

Orduan arkatzak esan zion Aitorri:

—Mesedez, erabil nazazu beti, eta horrela ez duzu lan gehiago egin behar-ko.

Aitorrek erantzun zion:

—Baina zuk egiten badizkidazu lanak, nik ez dut ezer ikasiko eta nik ez dut nahi hori.

Hori esan ostean arkatza asko haserretu zen eta, ozen, hitz magikoak hasi zen esaten, beste boligrafoak, arkatzak, borragomak, guraizeak... magiko bihurtzeko eta Aitorren kontra jartzeko eta borroka egiteko.

Tresna guztiak hormak, armairuak, lurzorua... margotzen hasi ziren. Aitorren logela osoa hankaz gora geratu zen eta berak ez zekien zer egin.

Bat-batean estutxe batetik errotuladore berdea atera zen esaten:

—Nahiko! Nahiko! Hau ez da ona! Ez dago ondo!

Momentu batean, denak geldituz, errotuladoreari begiratu zioten eta honek oihukatzen jarraitu zuen:

—Nahikoooo!!! Mesedez, geldiiii!!

Arkatz magikoak ez zuen entzun nahi eta dena apurtzen jarraitzen zuen, baina besteak gelditu egin ziren, errotuladoreak zioena entzun nahi zutelako.

Errotuladore berdea hasi zen azaltzen hori txarto zegoela, gauzak ez zituztela konponduko borrokatzen, eta jarraitu zuen esaten eurak Aitorri bere etxerako lanekin laguntzeko zeudela han, idatziz eta kolorea emanez.

Errotuladoreak arrazoia zeukala eta arkatz magikoa erratuta zegoela onartzen hasi ziren tresnak. Azkenean arkatz magikoa konturatu zen txarto portatu zela eta proposamen bat egin zuen: **denen artean batu behar zuten logela eta konpondu apurtuta zegoena.**

Denak ados egon ziren eta gauzak ondo garbitu ondoren promesa egin zuten beti izango zirela lagunak eta Aitorri laguntzeko zeudela han.

Egia bada sinets, gezurra bada amets.



|U|N|T|X|I|A
|E|T|A
|Z|I|Z|A|R|E|A

June Piqué Castilla,
Pagasarribide HLHI



Bazen behin, Txipi izeneko untxia ortu polit batean bizi zena. Ortua tomatez, azenarioz, patataz, letxugaz eta kalabazaz beteta zegoen.

Egun batean, zizare bat agertu zen sagar baten atzetik.

—Kaixo, nor zara? —galdetu zuen untxiak.

—Ni Kuka zizarea naiz eta buelta bat ematen ari naiz zure sagarrondotik.

Txipik marigorringo lagunaren etxera joan behar zuen azkar hosto batzuk eramatera.

Untxia joan zenean, zizarea zuhaitzetik jaitsi zen eta letxuga guztiak jan zituen!!

Bi ordu ondoren, Txipi ortura itzuli zen. Lehenengoz oso haserretuta zegoen hondamen hori ikustean.

—Zergatik jan dituzu letxugak baimenik gabe? —jakin nahi zuen Txipik.

—Sentitzen dut —esan zuen Kukak— inoiz ez dudalako frogatu hain letxuga onik.

—Benetan? —galdetu zuen Txipik.

—Bai, asko gustatu zaizkit —erantzun zuen Kukak.

—Ez kezkatu, gehiago landatuko ditugu bion artean —esan zuen untxiak— eta hazi ondoren pentsatuko dugu zer egingo dugun uztarekin.

Denbora pasatu ondoren, Txipi eta Kuka lagunak egin ziren. Txipi sukaldari ona zen eta Kukak bere plater guztiak dastatzen zituen egunero. Bikote honek elkarrekin gustura egiten zuen lan. Horregatik jatetxe bat antolatzea erabaki zuten. Produktu guztiak ortuan biltzen zituzten eta janari gozo-gozoak prestatzen zituzten.

Berehala, haien jatetxea ospetsua egin zen ortu inguruan. Jatetxeko berezitasunak hauexek ziren: entsaladak, barazki ogitartekoak eta azenario-tarta.

Animalia asko joan ziren jatetxera eta jan ondoren oso pozik irten ziren.


Denbora pasa ondoren, lau Mitxelineko izarrak lortu zituzten bien artean.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Pagasarribideko ortuan.

MARTERA JOAN ZEN ZIENTZIALARIA

Asier Castaño Bustamante,
Kirikiño Ikastola HLBHIP


Bazen behin, Ameriketako Estatu Batuetan Mikel Etxebarria izeneko zientzialaria. Berak hainbat gaixotasun sendatzeko botikak asmatu zituen. Mikelék “alzheimer” gaixotasuna sendatu nahi zuen. Jendeak ezingo zuela esaten zion, baina berari bost axola. Hainbat gauzarekin saiatu zen, baina alferrik. Ez zuten ezertarako balio. Azkenean Martera joatea bururatu zitzaion. Han zerbait aurkituko zuela pentsatzen zuen. Espaziontzia eraiki eta Martera abiatu zen.



Martera heldu zenean aho zabalik geratu zen. Gauza pilo bat zeuden: kraterak, martetarrak, intsektu desberdinak, hauts piloa... Gaixotasuna sendatzeko zerbait bilatzen hasi zen. Ez zuen ezer aurkitzen. Bat batean —KAIXO!— esan zuen norbaitek. Munstro batzuk ziren eta Mikel Etxebarria zientzialariari beraiekin egon nahi ote zuen galdetzeraz etorri ziren.



Munstroek esan zioten Marten hainbat gaixotasun sendatzeko gaiak zuela. Orduan Mikel Etxebarriak alzheimer gaixotasuna sendatzeko hauts magiko batzuk hartu zituen, jendea sendatzeko.



Bilbora heldu zenean hauts magikoak medikuei eman zizkien eta horrela alzheimer gaixotasuna ez zen gehiago agertu.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



NIRE TXIKITAKO ABENTURA

Peio Rodriguez Diego,
Felix Serrano HLHI

Klasean geunden denak. Andereñoa matematikako zatikiak azaltzen ari zen. Ni oso aspertuta nengoen, pentsatzen nuelako ez zuela ezertarako balio. Nire bideojokoetan pentsatzen ari nintzen. Zelan irabazi partidak eta zelan jokatu. Bat-batean niri galdetu zidan eta nik ez nion erantzun, ez nekielako. Berriro galdetu zidan eta, nik libratzeko, mateko liburua etxean utzi nuela esan nion. Barkatu ninduen, baina hurrengoan kanpora botako ninduela esan zidan. Ni, bel-durtuta, bideojokoetan pentsatzeari utzi eta zentratu egin nintzen. Klasea bukatu zen eta atsedenaldira joateko ordua zen. Denak joaten hasi ziren, ni ere lagunekin nindoan. Baina andereñoak deitu egin zidan, eta berarengana joan nintzen. Bere ustez, egun hartan, klasean arreta gutxi jarri nuela esan zidan. Liburua ahaztu nuelako urduri nengoela erantzun nion.

Atsedenaldia eta gero, klasean sartu ginen. Ni oso adi nengoen. Norbaitek paper bola bat bota zidan, baina ez nengoen seguru nor izan zen. Handik minutu gutxitara beste bat bota zidan, eta pixka bat haserretu nintzen. Berriro bota zidan, eta andereñoari esan nion. Klasean galdetu zuen eta inork ez zuenez eskua altxatu, kalera bota ninduen, ganera kopia bidali zidan. Oso injustua iruditu zitzaidan, niri paperak bota molestatzeko, nik andereñoari esan eta ni kalera kopiarekin. Hamar minutu pasatu ziren, eta Mikel kaleratu zuen. Mikelek azaldu zidan berari berdina gertatu zitzaiola. Hitz egiten egon ginen eta kopia neukala ahaztu zitzaidan. Hogei minutu pasata Ander agertu zen. Bere ondoan zegoen batek papera bota zuen eta andereñoak Ander izan zela pentsatu zuela kontatu zigun. Hirurak geunden berriketan. Irakasle bat pasatu zen eta lan egiten ari ginela pentsatu zuen.



Anderrek Sofia izan zela kontatu zigun. Arratsaldean merezi zuen eskarmentua emango geniola adostu genuen. Mikelek proposatu zuen paper bola batzuk egiteko, barruan irainak idatzita eta klasean Sofiari botatzeko. Anderrek Sofia

jotzeko proposatu zuen, baina nik biolentzia eta irainik ez erabiltzeko esan nien. Irakasleari esan ahal geniola azaldu nien, baina ez zen ideia ona izan. Txibatoak izango ginen, eta gainera ez gintuen sinistuko. Adosten ari ginela, gero eta altuago hitz egiten genuen. Ez dakit zergatik baina gure irakaslea pasilora irten zen. Altu hitz egiten ikusi gintuen eta zuzendaritzara bidali gintuen. Zuzendariari gertatutakoa kontatu zion irakasleak.


Zuzendariak zer egin genuen galdetu zigun. Eta neuk erantzun nion lehenengo. Paperarena eta pasiloan gertatutakoa kontatu nion. Berari arraroa iruditu zitzaion, kanpora botatzearena. Gero Mikeli tokatu zitzaion. Berak berdina esan zion, paperarena eta pasiloan gertatutakoa. Gero Anderri tokatu zitzaion, baina arraro jokatu zuen. Ez zuela kontatu nahi esan zuen, baina azkenean zuzendariari azaldu zion. Mikel eta biok arraro jokatzeko ari zela konturatu ginen. Gezurra esaten ari zela ematen zuen. Bukatu zue-nean gurekin eseri zen. Zuzendariari arraro iruditzen zitzaion andereñoak hain errez zigortzea. Gero, han geratu ginen hirurak aspertzen. Zuzendariak komu-nera zihoala esan zigun, eta joan egin zen.



Hirurok gelditu ginen bakarrik eta hizketan hasi ginen. Mikelek zuzendariak gezurra esan zigula pentsatu zuen, eta komu-nera joan beharrean gure gurasoei deituko ziela esan zigun. Nik hori ezinezkoa zela aipatu nuen, irakasleek ezin dutelako gezurrik esan. Mikel eta biok hizketan geunden, Ander isil-isilik zegoen. Zerbait larria gertatzen zitzaiola ematen zuen. Mikelek zer gertatzen zitzaion galdetu zion. Anderrek ez zuen erantzun. Bost segundu pasatu ziren, eta isiltzeko esan zigun. Zuzendaria etortzen zenean, hizketan harrapatuko gintuela azaldu zigun. Denak isildu ginen, baina Mikelek eta biok ez genekien oraindik zein zen arazoa, ez zigun azaldu nahi. Bost minutu egon ginen barruan, eta zuzendaria ez zen agertzen. Pentsatzen hasita nengoen Mikelek arrazoi zuela, eta zuzendariak gezurra esan zigula gure gurasoei deitzeko. Minutu bat pasatu zen eta alarma arraro bat piztu zen. Ez zen jolastokikoa bezalakoa, ez genuen inoiz entzun. Gero ume txikiak entzun genituen pasilotik. Gero ikasle nagusiagoak entzun genituen. Eta azkenik bosgarren eta seigarren mailakoak. Simulakro bat ote zen galdetu nion Mikeli. Mikelek ez zekien zer zen, eta Anderri galdetu nion. Bere ustez, sute bat izan ahal zela esan zigun. Ni pixka bat ikaratu egin nintzen. Pasiloan begiratzera joan nintzen baina atea giltzez itxita aurkitu nuen.

Zuzendaria izan zela pentsatu genuen. Baina momentu horretan problema ez zen hori. Ez genekien sutea edo simulakroa zen eta horregatik leihotik begiratzera joan nintzen. Leihotik kea ikusten zen. Mikelek ez zekien zer egin eta nik ere ez, Ander larrituta zegoen ez zuela hil nahi esaten. Ni pentsatzen nengoen eta bat-batean leihotik joatea bururatu zitzaidan. Mikelek esan zigun ez zela posible, handik goitik jausten baginen... Anderrek esan zigun bera ez zela hain ona eskalatzen. Nik pixka bat animatu nituen, hirugarren solairua zela bakarrik eta jausi ezkerre bakarrik hezur bat edo bi apurtuko genituela, besterik ez. Gainera hobeto zela hezur batzuk apurtzea sutan hiltzea baino.

Eta horrela egin genuen. Ni lehenengoa izan nintzen ateratzen. Beldurtuta nengoen. Eskola sutan, gu eskalatzen eta gainera, nire hezurak arriskatzen. Bigarrena, Mikel izan zen eta hirugarrena, Ander. Barrualderantz begira geunden patio txiki batera. Nik patio bezalako leku hori ez nuen nire bizitza osoan ikusi. Teilatu zati baten gainean geunden, metro bat baino gutxiagoko zabalera zeukana. Astiro gindoazen, beste leiho batera. Gure ideia zen leiho horretatik sartzea, ez genuelako surik ikusten. Nire beldurra zen eskola sutan zegoela eta eskola jausi ahal zela. Leiho batetik pasa ginen eta atea erretzen ikusi genuen. Guk nahi genuen lekura heldu ginen eta lehioetik ez zen surik ikusten. Mikelek sartzeko esan zigun, baina ez genekien nola, leihoa itxita zegoelako. Anderrek teilatuko teila bat hartu zuen, leihoa apurtu eta azkenean zabaldu egin genuen. Baina ez zen ideia ona izan, ez genekielako beheko solairuan surik ote zegoen.



Niri ideia bat bururatu zitzaidan. Eskola barrura sartu, eta arrapaladan azkeneko pisura joan nintzen. Han eskuko eskailera txiki bat zegoen. Hartu egin nuen eta lagunak zeuden teilatu txikira joan nintzen. Mikelek galdetu zidan zergatik ez nintzen eskaileretatik jaitsi. Nik 2. pisuan su gehien zegoen tokia ikusi nuela erantzun nion. Sua barrutik zen bakarrik, kanpotik ez, baina laster egongo zela adierazi nien lagunei. Gero Mikelek zertarako behar genuen eskuko eskailera galdetu zidan. Nik ez nion erantzun kontzentratuta nengoelako. Eskailera hartu eta bigarren pisuko tuberia finkatu nuen. Horrela, pisuz pisu jaitsi ahal ginen behera. Lehenengoa jaisten ni izan nintzen, gero Mikel eta azkenik Ander. Berriro gauza bera egin genuen. Nik eskailera 1. pisuko leihoan finkatu nuen. Anderren txanda heldu zenean eskailera eskuetatik irristatu zitzaion lurrera jausiz. Gu 1. pisuan geunden. Gutxi zen, baina ez geneukan eskailerarik.

Gu tuberia baten gainean geunden 1. pisuan. Ni izan nintzen lehenengoa lurrera salto egiten. Mina hartu nuen, baina ez zitzaidan ezer gertatu. Gero Mikelek salto egin zuen, eta azkena Ander izango zen salto egiten. Gu itxaroten geunden. Ander salto egitera zihoan baina ez zuen saltorik egin. Bat-batean, paperarena bera izan zela aitortu zuen eta ez Sofia. Barkamenak eskatu zizkigun eta asko damutu zen egin zuenagatik. Guk barkatu egin genion baina arin salto egiteko agindu genion eskola sutan zegoelako. Salto egitera zihoan, baina tuberia apurtu eta buruz behera lurrera erori zen. Konortea galdu zuen. Guk hartu egin genuen. Nik besoetatik eta Mikelek hanketatik. Ate bat zegoen eskolara sartzen zena. Zabalik eta sutan ote zegoen begiratzeraz joan nintzen, su



gutxi zegoen alde horretatik eta sartzea erabaki genuen.

Eskola barruan geunden. Nik beldur pixka bat neukan eskola sutan eta gure laguna konortetik gabe zegoelako. Eskola barruan geunden eta ematen zuen suhiltzaileak han zeudela sirena hotsa entzuten genuelako. Atea berrogeita hamar metrora ikusi genuen eta ahalik eta arinen atera ginen. Anbulantzia bat behar genuen. Anderren zauriak oso larria ematen zuen. Mikelek esan zidan suhiltzaileak zeuden tokira joateko han anbulantziaren bat egongo zelako. Arin-arin joan ginen eta anbulantziak Ander eraman zuen. Gu larrituta joan ginen bakoitza bere etxera.

Hurrengo egunean eskolarik ez zegoenez, Mikel eta biok ospitalera joan ginen bisitan. Anderrek ondo zegoela esan zigun, medikuak esaten zuela nerbioengatik desmaiatu zela. Anderrek eskerrak eman zizkigun egindakoagatik eta asko poztu nintzen.

Bakarrik gauza bat gelditzen zen argitzeko, ea nork utzi ote gintuen giltzapean. Karmelek, musikakoak, parkamenak eskatu zizkigun berak, zuzendaria kanpoan ikusita, giltzez itxi baitzuen. Nerbioak izango zirela azaldu zigun. Nerbio horiei esker gu bolada labur batez eskola eta hiriko heroiak izan ginen.

POZIK BIZI NAIZ!

Maider Belloso Espallargas,
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Kaixo, ni Paula naiz eta 11 urte ditut. Ospitalean ingresatuta egon nintzen. Orain dela urte batzuk aitaren kamioian nengoen amarekin buelta bat ematen eta gure aurrean txori bat ipini zen. Istripua ikaragarria izan zen ama despistatu zelako eta zuhaitz baten kontra jo genuelako. Amak eskuineko besoa eta saiheits bat apurtu zituen eta nire hanka guztiz birrinduta gelditu zen.

Ospitalean aste batzuk pasa eta gero, medikuak esan zidan hanka moztu behar zidatela. Negar asko egin nuen baina gairitu egin nuen familiaren laguntzari esker eta orain guztiz ondo nago. Ikastolan primeran pasatzen dut futbolekin eta saskibaloian jolasten.



POZIK BIZI NAIZ!

Kaixo ni Pedro naiz eta 14 urte ditut.

Ospitalean nago. Egun baten kaletik nindoan nire amarekin, eta lasterbide bat bilatzeko bide debekatu batetik sartu ginen, eta zoritxarrez arroketera jausi nintzen.

Orain ezin naiz mugitu eta ospitalean pasatzen dut egun guztia; nire etxe bihurtu da. Hala ere, telebista ikusten dut, irakurtzen dut eta egun gehienetan familia eta lagunak ni bisitatzen etortzen dira. Oso ondo pasatzen dut ospitaleko beste ume guztiekin. Beti gaude txisteak kontatzen.



POZIK BIZI NAIZ!

Kaixo ni Itxiar naiz eta 9 urte ditut.

Ospitalean egon nintzen. Gazteagoa nintze-nean, gutxi gorabehera 7 urterekin hondartzan nengoela, intsolazio oso gogor batek eman zidan eta nekien guztia ahaztu nuen: hitz egiten, idazten, irakurtzen...

Baina andereño batekin, lan gogorra egin eta gero, berriz irakurtzen, idazten, hitz egiten... dut. Guztiz gainditu dut eta orain ondo baino hobeto nago.



POZIK BIZI NAIZ !

Kaixo, ni Ander naiz eta 12 urte ditut.

Ospitalera astero joaten naiz. Normalean jendea 9 hilabete egoten da bere amaren sabelean jaio baino lehen, baina ni 5 hilabete soilik egon nintzen; horregatik gaixorik daukat bihotza: ezin dut korrika egin, kirola egin, ezta gauza batzuk jan ere...

Astero ospitalera joaten naiz eta batzuetan arnasa hartzea kostatzen zait baina, hala ere, mendikuen laguntzari esker aurrera noa!!



POZIK BIZI NAIZ!

Lau ume horiek elkar ezagutu zuten ospitalean. Gaur egun neska-mutil horiek gizon-emakume arduratsu bihurtu dira. Euren bizitzaren hasiera gogorra izan zen baina zorte onez, beti norbaiten laguntza eduki zuten. Orain beraiek dira beste ume batzuen laguntzaile.

Paula eta Ander medikuak dira, Itxiar ospitaleko umeen sailean sikologoa da eta Pedrok, nahiz eta ohean mugitu gabe egon, ordenagailuaren bitartez konferentziak ematen ditu bera bezala dagoen jendea animatzeko.

Laurok jendearen bizitza hobetzeko etengabe lan egiten dute eta horregatik...



POZIK BIZI DIRA!!

AITOR NIRE LAGUNA? NOLA EZ!

Iraide Domingo Fernandez,
Artxandape Ikastola HLBHIP

Aitor nire lagunik onena da. Orain hamabi urte ditu eta bigarren mailatik ezagutzen dut.

Patioan beti nago berarekin baina ez gara futbolean jolasten, beste mutil batzuk bezala, Aitorri ez zaiolako gustatzen. Hala ere, ni ez naiz berarekin aspertzen zeren eta txistek kontatzen dizkit eta biok barre egiten amaitzen dugu. Egunero etxerako lanak elkarrekin egiten ditugu. Nik batzuetan matematika edo euskara azaltzen diot eta berak ingelesean laguntzen dit niri. Ingelesean oso ona da bere aita ingelesa delako.

Ostegunetan igerilekura joaten gara baina Aitorrek bizikletaz ibiltzea nahia-go du oso azkar ibiltzen delako. Berak esaten duenez: ura bustita dago!

Aurten mugikor bat oparitu diote eta beti dago super-heroien argazkiak bere perfilean ipintzen. Joko asko ditu mugikorrean.

Bere familia oso handia da, horrexegatik ia asteburu guztietan urtebetetze-
ren bat ospatzen du: amamarena, lehengusinarena, izekoarena...

Aitor maitagarria eta umoretsua da eta nik asko maite dut. Eskerrik asko zaren bezalakoa izateagatik.

Aitor nire lagunik onena da. Orain hamabi urte ditu eta duela lau urtetik ezagutzen dut.

Patioan ez du jolasten futbolean zeren eta bere koordinazioa txarra da eta besteez ez diote pilota pasatzen. Orduan oihuka hasten da eta nolako iskanbila! Normalean irakasle bat joan behar izaten da eta lasaitzeko niregana etortzen da eta txistek kontatzen dizkit, baina txiste gehienak ez ditu ulertzen. Orduan nik azaltzen dizkiot astiro-astiro baina, hala ere, ez ditu ulertzen.

Batzuetan klase orduetan irakasle bat etortzen da eta klasetik irteten da berak behar dituen gauzak lantzeko. Nik ez dakit zer esan nahi duen horrek baina,

egia esan, Aitorri asko kostatzen zaio ikastea eta laguntza handia behar du.

Gabonetan mugikorra oparitu ziotenetik beti dago jolasten. Berak nik berarekin jolastea nahi du baina niri joko horiek ez zaizkit gustatzen ume txikientzat direlako eta berari, aldiz, asko-asko. Nola egiten duen barre! Irteten garenean igerilekura joateko edo etxerako lanak egiteko bere amak ez dio eramaten uzten Aitor oso despistatua delako eta galdu dezakeelako.

Aitor nire lagunik onena da eta Down Sindromea du. Nik amari galdetu diot zer den eta berak esan dit Down Sindromea duen pertsonak 47 kromosoma dituela eta kromosoma gehigarri hori 21. parean dagoela. Baina nahiz eta Down Sindromea izan, horrek ez du esan nahi ezin dela nire lagunik onena izan, alaia, langilea, pertsona ona...

Aitor maitagarria eta umoretsua da eta nik asko maite dut. Eskerrik asko zaren bezalakoa izateagatik. Ni zutaz harro nago.

SENTIMENDUAK TXOTXONGILOEKIN

Ahmed Mabchour Mehdi,
Ángeles Custodios HLBHIP

Fede jauna gizon berezia zen. Era guztietako txotxongiloak egiten zituen, baina sekula ez zizkion inori erakusten, berak pentsatzen zuelako kontatuz gero ametsa ez zela egia bihurtuko.

Bera bakar-bakarrik bizi zen eta hain bakarti ez sentitzeko txotxongilo bat, bi, hiru eta lau (eta bost eta sei...) egiten zituen. Geldika-geldika bilduma ederra osatzen joan zen.

Gure asmatzailearen txotxongiloak ez ziren nolanahikoak, ez horixe. Hain trebezia handiz egiten zituen baitzirudien panpina izateari uzten ziotela eta bizia hartzen zutela.

Behin, damatxo bat egitea bururatu zitzaion “nire maitea izango da” pentsatu zuen eta “bihotz moduan bi harritxo ipiniko dizkiot” esan zion bere buruari. Helburua zen harritxoak bata bestearen kontra igurtzita txinpartak sortzea eta txinparta horiek bere maitaleari barrutik eta kanpotik argia ematea. Baina proba egiteko harritxoak elkar igurtzen ipini zituenean, hain indar handia hartu zuen sortutako garrak, non panpina goitik behera kiskali baitzen. “Maitasunaren garrek kiskali egin diote bihotza” esan zuen penaturik eta “berriro ere bakar-bakarrik egongo naiz ” pentsatu zuen.



Ondoren txori bat eraikitzea otu zitzaion, ametsak izarretaraino eramango zizkion esperantzaz. Ez dakigu txoria izarretaraino heldu ote zen, baina hain ondo eta hain urrun egin zuen hegan, ez baitzen inoiz itzuli. Berriro ere, bakardade gorrian zegoen Fede gaixoa.

Goiz batean, ordea, bihotza taupa-taupa jarri zion ideia zoragarri batek.

—Nire anaia bikia sortuko dut —bota zuen liluratuta—. Bera panpina izango da eta ni pertsona, baina berdin-berdinak izango gara. Horrela maite-maitea izango naiz eta neuk ere, anaia izango balitz bezala, maiteko dut.

Astirik galdu gabe ispilu aurrean jarri eta gogoz ekin zion lanari gure jaun jakintsuak. Lehenengo enbor batekin txotxongiloaren gorputza izango zena atera zuen. Ondoren, sakon pentsatu zuen non kokatu pieza bakoitza, zeren eta panpinak bizia hartzea, pentsatzea eta sentitzea lortu nahi zuen. Burmuina nola eraiki ere erabakita zeukan, bere erloju kutunaren gurpilak erabiliko zituelako. Ahoan berriz musika kutzak iltzatu zizkion, horrela, panpinaren ahotsa urretxindorrarena bezain ederra izango zen. Fede jauna ordu luzez aritu zen jo eta ke eta azkenerako leher eginda bukatu zuen.

—Bihar jarraituko dut —pentsatu zuen eta, erdi arrastaka, suge baten moduan, ohean sartu zen.

Baina gau hartan zer gertatu behar zen, eta miraria!

Txotxongiloak begiak ireki zituen. Txotxongiloak bizia hartu zuen eta astiro eta poliki lurretik jaiki eta eseri egin zen. Goizean Fede jaunak panpina aurkitu zuen leihotik begira. Hura ezustekoa hartu zuena han topatu zuenean! Hotzikara batek zeharkatu zion gorputza.

—Zu al zara, anaia maitea? —galdetu zuen izaki biziak.

Fede jaunak ez zion erantzun. Izututa zegoen berak diseinatutako anaiaren irudia ikustean ez zuelako pentsatzen inondik inora.

Anaia egiten bukatu zuen eta zoriontsu bizi izan ziren, anaia min-minak izango balira bezala.

AMETS HARRIGARRIA

Aritz Saavedra Martinez,
Karmelo Ikastola HLH

Bazen behin Unai izeneko umea. Bera Iruñakoa zen eta abenturak eta gauza harrigarriak gustatzen zitzaizkion.

Goiz batean, beti bezala, ikastolara joan zen eta mateko saio baten erdian lo geratu zen. Bat-batean amets harrigarri batean sartu zen, mateko azterketa batean, hain zuzen ere. Azterketaz asperturik esnatu egin nahi zen, baina ezin.

Bere amets harrigarrian mateko azterketaz gain, munstroak, joko arraroak, sorgin onak... zeuden, gauza ikusgarri pila bat. Halako batean, kobazulo batean ikusi zuen bere burua. Bertan animalia gaiztoak zeuden. Tigre erraldoi batek ia hil egin zuen, baina bere oin azkarrei esker alde egitea lortu zuen. Bidean, noraezean zebilela, printze batekin egin zuen topo eta zera galdetu zion:

—Mutil, ikusi ahal duzu gaztelurik hemendik?

—Bai, honantz nentorrela gaztelu erraldoi bat ikusi dut mendi puntan.

Aizu, eta zuk badakizu amets honetatik nola atera naiteken?

—Bai, gaztelura joan behar zara ni bezala, nik ere amets honetatik alde egin nahi baitut.

—Ederto. Beraz elkarrekin joan gaitzke —esan zuen Unaik.

Gaua ere heldu zen eta zuhaitz handi baten azpian makurturik lo geratu ziren. Hurrengo egunean eguzkiaren lehen izpiekin esnatu ziren eta untxi txiki bat zegoen beraiei begira. Untxiak zera galdetu zien:

—Zer egiten duzue hor?

—Lo geratu gara, baina oraintxe bertan gaztelurantz joango gara.

—Zer nolako kasualitatea, ni ere gaztelura noa ea amets honetatik alde egiten dudan —esan zuen untxiak.

Gaztelurantz zindoazela, bidean sagutxo batekin topo egin zuten eta galde-tu zien:

—Nora zoazte hain azkar?

—Gaztelura goaz ea amets honetatik alde egiten dugun. Bazatoz gurekin? —galdetu zioten.

—Ezta pentsatu ere, bertako erregea oso maltzurra da eta nahiago dut hemen betirako gelditu erregearekin topo egin baino.

—Hain maltzurra izateko zer egin du, ba? —galdetu zuten besteek.

—Zuek bezalako beste mundu bateko izakiak preso ditu eta berarentzat lan egiten dute. Horren ordeztu egunero bazkari bat baino ez die ematen.

—Aizue, beharbada ez da hobe izango hemen gelditzea betirako? —galde-
tu zuten untxiak beldurtuta.

—Ezta pentsatu ere. Nik nire etxera bueltatu nahi dut, bestela nire jolas guztiak anaia bikiarentzat izango dira. Aurrera lagunak!

Horrela, presaka, Unai eta lagun berriak gaztelura abiatu ziren. Gaztelu aurrean zeudela, ate izugarri bat ikusi zuten. Ateak ez zeukan inolako txirrinik eta ate joka hasi ziren, baina ez zen inor ageri. Atea zabaltzea ezinezkoa zen eta ea atzeko aldean leihoren bat zegoen ikustera joan ziren. Bingo! Atzealdean leiho bat zegoen eta gainera zabalik. Salto egin eta sartu egin ziren. Pasabide ilunak zeharkatzen eta izakien oihuak entzuten hasi ziren. Beldurtuta aurrera jarraitu zuten eta erregearekin topo egin zuten. Erregea gizon lodi eta itsusia zen. Bera-
rengana hurbildu eta esan zioten:

—Hau ez da gure mun-
dua eta hemendik alde egiteko
hona etorri behar ginela esan
digute.

—Bai, hala da, baina ez
pentsa hain erraza denik. KAR-
KAR-KAR! —esan zuten erre-
geak—. Hemendik alde egiteko
froga matematiko bat pasatu
behar duzue eta orain arte inork
ez du pasatu. KAR-KAR-KAR!

Unai eta bere lagunak
harrituta geratu ziren. Bitartean,
Unaik bere buruari esan zion
“matematikako klaseetan lo ge-
ratu izan ez banintz...”. Jarraian
erregeak ahots ozen batekin
esan zien:

—Bueno, prest zaudete
froga matematikoa entzuteko?

Besteek beldurturik
baietz esan zioten eta ixil-ixilik
froga entzun zuten. Froga en-
tzun ostean, aho zabalik geratu
ziren eta bat-batean Unai sal-
toka eta garrasika hasi zen:

—Badakit, badakit, ba-
dakit erantzuna! Pasa den as-
tean irakasleak azaldu zigun eta
zorionez esna-esna nengoen
IUFIUUU!



Erregearen aurpegia erabat aldatu zen eta are itsusiago bihurtu zen.

—Ea, esan erantzuna!!! —oihukatu zuen.

Unaik erantzuna esan eta erregeak garrasika esan zuen:

—UME MADARIKATUA, ASMATU DUZU!

Bat-batean gazteluko ate erraldoia zabaldu egin zen eta Unaik, bere lagun-
nek eta preso zeuden beste izaki guztiek alde egin zuten.

Bat-batean Unaik begiak zabaldu zituen eta

—Non nago? Ikastolan nago! Gelan nago!!!

Beste ikasle guztiak barrezka hasi ziren. Irakaslea hurbildu zitzaion eta esan
zion:

—Baina, Unai, orain ere lo geratu zara? Zer egingo dut nik zurekin. Esna
egongo bazina, gauza berriak ikasiko zenituzke eta, nork daki, beharbada, egunen
baten arazoren batetik irteteko ere ikasketa horiek baliagarriak izan daitezke.

Unaik irakasleari begiratu eta irri egin zion.

GARAZIREN SEKRETUA

Irati Portela Mendiolagoitia,
Karmelo Ikastola HLHI

Garazi herri txiki batean bizi zen. Albaitaria zen, baina albaitari berezia. Garazik animaliekin hitz egiten zuen.

Egun batean, herriko tabernari batek zozketa bat egin zuen mundutik buelta emateko, eta Garazik txartel bat erosi zuen.



Zozketaren egunean, Garazik ezin izan zuen joan lanean zegoelako, baina gauean bere lagun hoberena zen Maiteren deia jaso zuen.

—Kaixo, Maite, zer gertatzen da?

—Garazi, ze zenbaki daukazu txartelean?

—1513. Zer, ba?

—Ai ene!!! Garazi, irabazi egin duzu!!!

—Zer irabazi dut??!!

—Bi pertsonarentzako mundutik buelta emateko bidaia irabazi duzu!!!

—Benetan??!! Baina, baina...!!! Zer egingo dut? Ai ene, Maite!! Nirekin etorriko zara, ezta?

—Jakina!! Garazi, primeran pasatuko dugu!!

Aste hori maletak eta gauzak prestatzen pasatu zuten, eta azkenean eguna heldu zen. Bidaia itsasontziz hasi zen eta Afrikara abiatu ziren. Afrika zoragarria zen, gauza asko ikusi zituzten eta animaliak ere, jakina, elefanteak, krokodiloak...

Garazi harrituta zegoen hainbeste animalia ezberdin ikusita. Maitek ez zekien Garazik animaliekin hitz egiten zuenik, beraz, Garazi saiatzen zen haren aurrean ez egiten. Elefante bat aurkitu zuten Afrikan, eta hauxe galdetu zion:

—Zer gertatzen zaizu?

—Mina dut hankan!!

—Okertu egin duzu! Benda bat jarriko dizut.

—Oso ondo, eskerrik asko!

—Nola deitzen zara?

—Joni, eta zu?

—Garazi, eta hau Maite da.

Maite harrituta zegoen Garazik animaliekin hitz egiten zuela ikustean.

—Garazi!!! Animaliekin hitz egin ahal duzu??

—Bai...

—Baina, baina, noiztik??!!

—Betidanik...


—Eta zergatik ez didazu inoiz esan?

—Zoratuta nengoela pentsatuko zenuela uste nuen. Egia esan, inork ez daki nire sekretua...

—Harrigarria da!! Baina lasai, ez diot esango inori.

Bideari jarraitu zioten. Herri asko ezagutu zituzten, itsasoak, ibaiak, animaliak... Neskek ezin zituzten begiak itxi. Hain ederra zen guztia...

Ozeano Atlantikoan gauza bat gertatu zitzaien. Gauean Garazik zerbait



entzun zuen eta Maite esnatu zuen. Itsasontziaren goiko partera igo eta bale bat laguntza eske ikusi zuten. Garazik zera galdetu zion:

—Zer gertatzen zaizu?

—Nire kumea soka batekin trabatu da!!

—Zortea daukazu, bi neopreno ditugu eta zure kumea salbatu egingo dugu!

—Eskerrik asko salbatzeagatik.

—Ez horregatik!

Garazik itsasontzian Maiteri azaldu zion itsasora ez direla zikinkeriak bota behar, bestela, bale kumeari gertatu zaiona gerta daitekeela. Bideari jarraitu zioten animaliei laguntzen. Itsasoa gurutzatzen ari zirenean, zarata bat entzun zuten, eta motorra hondatu egin zela konturatu ziren. Maitek kotxe tailer batean lan egiten zuenez, motorra konpontzen saiatu zen, baina zoritzarrez ez zuen lortu.

Neskak asko larritu ziren, baina bat-batean Garazik oihukatu egin zuen:

—Badakit zer egingo dugun!! Laguntza eskatuko dugu!!

—Laguntza? Baina nori? Hemen ez dago inor!!

—Bai, badago norbait, Maite!! Ez gaude bakarrik!!

Eta Garazi laguntza eskatzen hasi zen. Halako batean urrunetik zerbait ikusi zuten.

—Begiratu, Maite, lehengo eguneko balea da!!

Balea hurbildu egin zen, eta honela esan zien:

—Lasai, lagunduko dizuet. Nik ez dut inoiz ahaztuko nigatik egin zenutena.

Eta bere gorputzarekin itsasontzia bultzatzen hasi zen.

Bidaia bukatzen ari zenez, handik ordu gutxitara beraien herrira heldu ziren. Jendeak balea ikusi zuenean harritu egin zen eta, askoz gehiago, ikusi zutenean zer bultzatzen ari zen. Itsasontzitik jaitsi zirenean herriko jendea agurtu eta galdezka hasi zitzairen. Neskek beraien bidaia guztia kontatu zieten, baina baleari buruz, txintik ere ez, modu horretan, Garaziren sekretua ondo gordeta zegoen.

C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



BIZITZA BERRIA

Beñat Apraiz Perez de Mendiola,
Begoñazpi Ikastola HLBHIP

2016ko ekainaren 4a:

Kaixo. Nire izena Abdel da. Hamalau urte dodaz. Errefuxiatua naz. Errefuxiatua arrazoi politiko eta sozialengatik bere bizitokitik ihes egin eta beste toki batean babesa bilatzen dauan pertsona da. Nik Siriako gerratik alde egiten dot. Orain dala hiru egun hartu genduan ihes egiteko erabakia, eta ordutik ez gara ibiltzen gelditu. Bidaia honetan, nire ama, nire aita, eta nire bi arreba goaz, eta jadanik bost kilo galdu doguz gutxi gorabehera. Nire ama Ath deitzen da, eta 39 urte daukaz; nire aita Asad deitzen da, eta 43 urte daukaz; eta nire bi arreba bikiak Anil eta Alin deitzen dira, eta 8 urte daukiez. Konturatu bazarie, izen guztiak “A” letraz hasten dira. Hori guri “A” letrak zortea emoten deuskulako da.

Eguneroko hau ondo bizi dan jendeak gure egoera ikusteko idatzi dot. Jendeak behartsuak garela uste dau, baina hori ez da egia. Gu ez gara behartsuak. Orain dala bost urte, gerra hasi zanean, gu zu bezalakoak ginan. Etxe batekin, lagunekin, ikastolekin, etab. Baina gerra hasi zanetik dana aldatu da. Etxeak apurtuta, lagunak hilda, ospitalak beteta, tankeak eta armadun gizonak leku guztietatik. Etxera itzuli nahi dot. Baina ez gerra dagoan etxe horretara, baizik eta orain dala bost urteko etxera. Nire etxera.

Hau amets gaiztoa da.

2016ko ekainaren 9a:

Bost egun. Bost. Bost egun pasa dira idatzi neban aurreko alditik, eta 20 egun pasatu dirala emoten dau. Itzelezko gose eta egarri naz. Eguerdiko 12:00ak dira, eta deskantsatzeko gelditu gara igotzen ari garan mendi bateko itzalean. Jan neban azkenengo aldia atzo izan zan, eguerdian uste dot.

Bazkaldu ostean:

Badakizue zer bazkaldu dodan? Atzo zoruan aurkitu neban mandarina bat eta etxetik ekarri neban bokata txikitxo bat. Gitxi irudituko jatzue, baina azken egunetan gehien jan dodan aldia izan da. Zortzi kilo. Zortzi kilo galdu dodazala esaten dau aitak.

2016ko ekainaren 11:

Gaua da. Koltxoneta batean etzunda nago, zeru izartsuari begira, eta nahiz eta gau lasaia izan ezin naz lokartu. Badakizue zer? Askok pentsatuko dozue zorigaiztokoa nazala, baina nik zorionekoa nazala pentsatzen dot. Oraindik bizirik nago. Nire familia ere bai. Ez naz txarto sentitzen, eta helmuga bat daukat. Hor ondo hartuko gaituela suposatzen da, eta etxe berri bat eukiko dogu. Lagun berriak. Amets polita da hori. Bizitza berria eta ona izatea.

2016ko ekainaren 17a:

Aitak ez deust idazten uzten, bere ustez denbora galtzen dodalako. Txorakeria hutsa da. Nire ustez, norbaitek nire eguneroko hau irakurtzen lortzen badau, munduko gerrak bukatzeko aukera egongo da. Hilketak gutxiago. Bizitza gutx...

2016ko Xren Xa:

Ez dakit ze egun dan.

Galduta nago.

Ez daukat ezer.

Zergaitik dago Xren Xa? Galdetuko dozue. Ba orain azalduko deusuet. Idazten nengoan aurreko aldian, nire aitak ikusi, liburua hartu eta urrunera bota eustan. Ni haserre bizian jarri nintzan, eta abiada bizian egunerokoaren bila joan nintzan. Egunerokoa ez egoan oso urrun, baina bolia... Galdu egin jatan. Nire ama deika hasi zan, baita nire arreba ere. Baina ez neban itzuli nahi, eta ez nintzan itzuliko. Korrika hasi nintzan, helmuga barik. Ez dakit zer gertatu jatan, baina bat-batean zoruan etzanda ikusi neban neure burua.

Orain Turkiako Adana hirian nago. Turismo bulego batean sartu naz eta bat-batean, jendea aurpegi txarrez begiratzen hasi jat. Normala iruditzen jatzue? Zer? Errefuxiatu batek ez dauka eskubiderik? Ba, dirudienez, ez. Ondo jasoko gaituen lekurik ez da existitzen. Orain ez naz inor. Bakarrik kaletik eskatzen doan gaztea. Molestatzen dauan gaztea.

Boli eta mapa bat hartu eta handik joan egin naz. Orain Adanako kanpoaldean nago, zuhaitz batean jarrita. Kostaldetik joango naz, Lesbos uharteraino. Bidea ez da laburrena, luzeenetarikoa baizik, baina ziurragoa dala uste dot.

Bueno, orain joan beharra dut.

2016ko abuztuaren 20a:

Konturatu ez bazarie, gaur ze egun dan jakin dot. Azken egunetan ez dot asko idatzi, nekatuta bainengoan. Orain Silithe hirian nago. Asko argaldu dot azken egunetan, eta gero eta txarrago eta nekatuago sentitzen naz, bai fisikoki eta psikikoki ere.

Egunak beti dira berdinak: Janaria eta edaria aurkitzeko borroka bat. Azken egunetan ez dot ezer jatea lortu. Atzo, zakarraren artean, janari erreto bat aurkitu eta jan neban —garbitu ostean, noski—. Badago egunero neure buruari galdetzen deusadan gauza bat. Jendeak nola bota ahal dogu janaria? Eta dogu esaten dot, zeren eta nik ere bai botatzen neban. “Hau ez jat gustatzen”, “banana hau ez dago ondo, pixka bat beltz dago” esaten neban. Orain horretan pentsatzen dot eta... Ez dakizu zelan gustatuko litzakidan banana hori eukitzea. Ez dakizue.

2016ko abuztuaren 26a:

Justo aurreko aldian idatzi eta ordu batzuk geroago, pertsona bat ezagutu neban. Fahd du izena, eta, ezetz asmatu bere adina? 7 urte. 7 urteko mutikoa horrelako bidaia luze bati bakarrik aurre egiten. Ezin dot sinetsi oraindik. Fahdek esan eustan bere gurasoek orain dala bi egun utzi eutsoela, ama hiltzen ari jakolako eta aita berarekin geratu behar zalako. Ezer gabe utzi eben, diru guztia ama sendatzeko behar ebelako. Berarekin topatu nintzan egunean bera nirekin eramatea erabaki neban.

Fahd idazten:

Kaixo. Nire izena Fahd da, eta 7 urte daukadaz. Ez dakit zer gertatzen dan ezta non nagoan ere. Dakidan bakarra zorionekoa nazala da, edo hori esan deust behintzat Abdelek. Ez dakit zer nahi dodan, orduan ez dakit zer egin. Gose naz, eta ez dakit non lo egin. Hori naz ni. Ez dakit zer gehiago kontatu.

2016ko irailaren 3a:

Kaixo, Abdel naz berriro ere.

Gaur bizitzan bururatu jatan ideiarik txarrena bururatu jat, baina bizitzeko egin behar dodan gauza da. Ez dot egin nahi, baina egiten nabil.

Fahd erabiltzen nago dirua biltzeko.

Kalean eserita dago, “Begiratu soilik. Justua da?” jartzen dauan kartoi batekin. Jendeak bakarrik dagoan ume txiki bat dirua eskatzen ikusten dauanean errezago ematen dau dirua.

Oso txarto sentitzen naz hau egiteagatik, baina beharrezkoa da.

2016ko irailaren 4tik azaroaren 19ra:

Azken egunetan diru asko lortzen ari gara nire planari jarraituz. Gutxienez jateko eta edateko ematen deusku, eta asteburu batzuetan aterpe batean lo egiteko aukera ere bai. Dena hobetzen doala dirudi. Bikain.

Gaur arropa berria erosi dogu. Oso merkea, eta ez oso ona, baina zerbait zerbait da. Desberdin sentitzen naz.

Atzo aterpe batean lo egin genduan, eta aterpeak dutxa eukan! Ahaztuta neban garbi egotean sentitzen dana. Beste alde batetik, konturatu naz Fahd oso guapo dala.

Agian ez neban hain ideia txarra euki.

Gaur Antalya hiritik pasatu gara, eta turismo pixka bat egitea erabaki dogu. Errefuxiatua izateak ez dau esan nahi ezin dogula disfrutatu!

Hotz egiten hasi da. Egunak laburragoak dira, eta horrek gau gehiago esan gura dau, eta honek, gau hotz gehiago.

Espero dot ezer ez gertatzea.

2016ko azaroaren 20a:

Gaixotu egin naz. Zeinen txarto nagoen. Orain Europara pasatzeko aurreztuta doguna gastatu behar dogu. Txarto sentitzen naz baina, hala ere, aurrera jarraitzen dogu. Astiroago, baina bagoaz aurrerantz. Ez dakit zer gertatzen jatan, eta horren ondorioz ez dakigu ze botika erosi. Farmazian danetarako dan bat hartu dogu, baina momentuz ez naz asko hobetu.

Hau ez jat gustatzen.

2016ko azaroaren 27a:

Azken egunetan autobusa hartzen egon gara. Fahdek esaten dau onena dala, oinez bagoaz ez garala garaiz iritsiko eta bidetik geratuko nazala, bere ama bezala. Nik kasu egin deusat, ez nagoalako ondo pentsatzeko. Baina kasu egin deusadan arrazoi nagusia ez da hori. Ez naz helduko, ez bizirik. Nik ez dot Europara pasatzeko bezain beste indar, eta gainera... Ez daukagu diru nahikorik biok pasatzeko. Ez. Bera bakarrik pasatuko da. Ni gabe.

Laster helduko gara Lesvos uhartera pasatzeko lekura.

2016ko abenduaren 1a:

Ayvaliken gagoz, Lesvosea pasatzeko tartetik hurbil dagoan hiri batean.

Gero eta okerrago nago. Botaka egiten, itzelezko buruko eta tripako minagaz eta, batez ere, oso-oso nekatuta.

Fahdi esan deusat bera pasatuko dala. Ez dau nahi. Ez da pasatuko ni bizirik nagoan bitartean. Nik bera salbatu nebala esaten dau. Ni lehenengo pasatzeko, txarto nagoalako. Berak dirua lortuko dauala esaten dau, baina ez dot sinisten. Bera pasatzen ez bada, ni bezala gaixotu egingo da, eta bera ez da atarako.

2016ko abenduaren 3a:

Kaixo. Fahd naz. Abdel hil egin da. Ez dago esateko gauza gehiagorik.

2016ko abenduaren 16a:

Azken egunetan ez dot idazteko ezta gogorik, ezta denborarik izan. Abdelen heriotzaren ostean, bakarrik geratu nintzan. Izututa. Ez nekien zer egin, baina laguntza eskatu eta luzaro itxaron ondoren, lortu dot. Uhartean nago! Pozik nagoela pentsatuko dozue, baina ez nago pozik. Oso triste nago. Errefuxiatuen zelai onenean nago, baina nahiago izango neban hona ez heldu izana, Abdel ez aurkitzea. Nahiago izango neban bidaia hau inoiz ez hasi izana. Gero eta heldua goa nazala uste dot. Nahiago izango neban hori ere ez gertatzea.


2017ko otsailaren 27a:

Inauteriak dira. Azken aldian ez dot idatzi, bizitza berria hastea erabaki nebalako. Eguneroko hau gorde egin neban, baina gaur gogoratu eta idazten hasi naz.

Errefuxiatu zelai honetan egunero hiltzen da jendea. Egunero dagoz negarrak. Ni ez naz nire “etxetxo”tik ataratzen. Nahiago dot sufrimendu hori guztia ez ikusi. Egunak laburrak dira, beti berdinak. Hemendik atera arte nire bizitzak ez dauka zentzurik. Hemen gagozan guztiok harrapatuta gagoz. Gelditu gabe zaunka dagozan txakurrak bezalakoak gara errefuxiatuak jende askorentzat. Hau bidezkoa da? Zuretzat txakurrak gara? Agian ez, baina ez zaitut laguntza bidaltzen ikusten. Zure ustez ez dogu bizitza berririk merezi? Edo hau da merezi doguna, bizitza zentzunbakoa.

Agian, gure egoeraz pentsatzeko ordua heldu da. Agian, aldatzeko ordua heldu da. Baina zure esku dago, ez gure esku.

Agian, errefuxiatuei bizitza berria emateko garaia iritsi da.



EZINEZKOTASUNERA BIDAIA

Leire Aresti Guijo,
Begoñazpi Ikastola HLBHIP

Aizu! Nora zoazela uste dozu? —galdetu eban Mikelek.
Iñakik ez eban inolako erantzunik emon. Izugarri izututa egoan eta jadanik inguratuta egoan, ezin eban bertatik alde egin. Nora joian galdetu eutsana futbol taldeko kapitaina zan. Txiki-txikitatik izan ziran lagun minak baina orain dala urte batzuk adiskidetasun hori apurtu egin zan.

—Ba, ba... etxera —erantzun eban azkenean Iñakik.

—Etxera amaxoren bularra hartzera, ezta? —galdetu eban ironikoki Peiok, Mikelen lagun minetako batek.

—Ja, ja, ja, hau dogu hau txantxa zalea, gure Peio! —gehitu eban Iratik, taldeko neska bakarrak. Iñakiri ez eutson batere grazia egin egoera horrek bae-kialako hurrengoa zer izango zan.

—Beno, zure amatxo maiteak diru pixkaren bat emango eutsun etxetik urten baino arinago, ezta? —Mikelek berriz.

—Ba, ez —dardarka Iñakik.

—Ziur zagoz? Horrela ez bada izugarrizko jipoia eman beharko deusugu. —harrotasunez Iratik.

—Beno... agian eurotxoren bat edo emongo eustan etxetik irten aurretik... —guztiz izututa Iñakik.

—Badakizu orduan, emoiguzu edo zureak egingo du! —esan eban Peiok bere eskua luzatuz.

Iñakik amak emondako bi euroak atera eta Peiori eman eutsazan bera bakean utz eian. Eta holan izan zan. Dirua lortu bezain laster irten ziran hiru lagunak korrika batean gozoki dendarantz dirua zertan xahutu pentsatzen.

Bitartean Iñaki etxerantz abiatu zan berriz ere. Eskolan ez eukan lagunik eta ez zan harritzekoa. Ume ha ez zan besteak bezalakoa, mutiko guztiz berezia

zan. Duela pare bat urte bere aita modu oso xelebrean hil ei zan. Ez dakigu ziurtasunez nola gertatu zan, inori kontatu ez deutsolako, baina egun horretatik aurrera bere bizitza guztiz aldatu zan.

—Etxera iritsitakoan, betiko lez, ama agurtu eta itzelezko musua eman eutsan.

—Zelan eskolan? —galdetu eutsan bere amak.

—Badakizu, ondo, betiko lez —gezurra esan eutson bere amaren begi urdin distiratsuak begiratzen ebazan bitartean.

—Azterketarik eman deutsue? —amak berriz.

—Bai, matematikakoa, gaztelerakoa eta ingelesekoa.

—Eta zer moduz?

—Nahiko ondo. Matematikan 9,5; Gazteleran 10; eta ingelesean ere 10.

—Bikain, Iñaki! Harrigarria!

Arratsaldekoa hartu ostean Iñaki bere logelara joan zan musika pixka bat entzunaz batera bere liburu baten bat irakurtzera. Irratian The Piano Guys-en CDa sartu eta Michael Enderen “La historia interminable” irakurtzen hasi zan. Milioika aldiz irakurria eban liburu hori baina irakurtzen eban aldiro zeozer berria ikasten eban. Lehenengoan irakurri ebanean izugarri gustatu jakon mutiko hori, bera lez, pixka bat xelebrea zala iruditu jakolako. Hurrengoan deskribapen desberdinetan erabilitako konparazioak maitatzen hasi zalako. Hirugarrenean bere pertsonaia harrigarriengatik. Eta horrela irakurtzen eban guztietan.

Iñakik ez ekiena zan irakurketa horrek aurretiaz izandako irakurketa guztiak gaindituko ebazala; liburu hori inoiz bezain beste maitatu edo gorrotatuko ebal. Hasi zan, ba, irakurtzen eta inoiz espero izango eban gauza gertatu zan, gauza sinestezina...

—Kaixo, lagun! —agurtu eban bera baino gazteagoa zan mutiko batek.

—Ka... ka... kaixo... —esan eban Iñakik

—Hau al da zure logela? —mutikoak lasaitasun osoz.

—Aizu! Nor zara? —Iñakik beldurra haserreaz ordezkatzuz.

—Bastian Baltasar Bux, irakurtzen ari zaren liburuko protagonista, hain zuzen ere.

—Ez da posible...

—Bai, lagun, posiblea da. Hementxe naukazu ta!

Iñaki mutututa geratu zan. Berak dozenaka bider irakurritako liburuko protagonista bertan zan, bere muturren aurrean.

—Ezinezkoa da! Ametsetan egon behar naz! —harrituta Iñakik.

—Jaitsi behera sukaldera eta ikusiko dozu ez zagozala ametsetan.— lasaitasun guztiz Bastianek.

—Eta nola jakingo dot ez nagoala sukaldearekin ametsetan? —interesez Iñakik.

—Ba, erraz —protagonistak—. Ama badago, ez zagoz ametsetan eta ama ez badago, hurrengo hau, zure bizitzako ametsik gogoangarrienetako bat izango da.

Eta hala egin eben, sukaldera jaitsi ziran eta han egoan bere ama lasai asko afaria prestatzen.

—Ama, ametsetan al nago? —ausartu zan galdetzera Iñaki.

—Ez. Zer ba? Ondo zagoz? —erantzun eban amak larritzen hasirik.

—Bai, bai, lasai egon —erantzun eban Iñakik amaren larritasuna nabaritutuz.
—Ikusten egia dala? —istorioko protagonistak.
—Egia bada, zergatik etorri zara? —Iñakik pixka bat suturik.
—Jadanik mundu honetan ez dagoan norbaitek eskatu deustalako Iñaki.
Iñakik ez ekian zer esan. “Jadanik mundu honetan ez dagoan norbaitek”
esan eban Bastianek. Ba al egoan beste mundurik? Nor zan norbait misteriotsu
hori?

—Begira, goazen paseo bat ematera beste sorpresa bat dot zuretzat eta.
—Abiatu zan berriz ere Bastian.
—Paseo bat? Nora? —kezkatuta Iñakik.
—Eguzkiloa parkera.

Iñakik gogoan eukan parke hori. Bere etxetik bizpahiru minutura egoan
parkea zan eta txikiagoa zanean sarritan joaten zan bere aita eta amagaz parke
horretara. Beno txikiagoa zanean edo aita hil aurretik. Bere aita hil zanetik oso
misteriotsu ebulan mutikoa eta ez eban parke horretara berriro joan nahi izan,
gaur arte.

Biak abiatu ziran Eguzkiloa parkera bertan zer topatuko zain. Bastianek
baekian bertan nor edo hobeto esanda zer egongo zan euren zain hiriko kaleetan
zehar hegaz egiteko baina Iñakik ez eukan ideiarik ere ez eta bere lagun berriak ez
eutsonez esan nahi hoberena galdetzeari uztea izango zala pentsatu eban.



—Iritsi gara! —esan eban Bastianek poz-pozik.
—Nik ez dot ezer berezirik ikusten —bota eban Iñakik bere inguruan egoa-
na arretaz aztertuz.

—Hori oraindik ez deustodalako deitu da. Gogoratu, izutu egiten bazara,
ez egizu oihurik egin parkeko jendeak gu bakarrik ikusten gaituelako eta ez beste
inor. —Iñakik baietz esan eban buruarekin eta jarraian Bastianek izugarritzko txis-
tua bota eban.

Han agertu zan, ba, hegaka izugarrizko dragoi eder bat.

—Badakizu nor dan, ezta? —galdetu eutson Bastianek Iñakiri.

Honek buruaz baietz esan eta hurrengo hau gehitu eban:

—Fujur, zortearen dragoia.

—Zuzen zagoz, mutiko —esan eban dragoiak sekulako ahots grabe eta sendoagaz.

—Gura badozue nire magalean eseri eta hirian barrena abiatu gaitezke, beti airean ibiliz, noski.

Bi mutikoek ez eben zalantzarik izan eta dragoiaren gainean eseri ziran jauzi batez.

Jarraian Fujur hegaka hasi zan. Bastian ohitua egoan baina Iñaki ez eta halan eta guztiz ere laster batean ohitu zan eta bere laguna bezain beste gozatzen hasi zan.

—Yujuuuu!—oihu egin eben bi mutikoak.

—Gauza bat —hasi zan tonu kezkatian Iñaki— beno hobeto esanda bi: lehenengoa, nora demontre goaz? eta bigarrena, nor da bidali zaituen beste munduko pertsona hori?

—Laster argituko dozuz bi galderak —izan zan dragoiak emandako erantzun guztia.

Minutu batzuk igaro ostean, euren helmugara iritsi ziran. Pagasarri menditik oso hurbil egoan parkea zan, berarentzat batere ezaguna. Konturatu zan itzalen artean norbait egoala euren zain, eta bera nor izan eitekean galdetzen hasi zan. Egoan argitasun txikiagaz ez zan gizonaren aurpegia oso ondo ikusten baina pausu batzuk aurrera emon eben eta...

—Aita!

Iñakik berehala ezagutu eban bere aitaren aurpegia, lanerako erabiltzen eban traje itsusi ha eta nola ez bere irribarre berezia.

—Seme!

Erreakzionatzeko ia denborarik gabe hasi ziran biak elkarrengana korrika eta sekulako besarkadak eta musuak emoten emon eben ordu oso bat.

—Seme, badakit amak eta zuk oso txarto pasatu dozuela niregatik edo nire faltagatik. Beste gauza batzuk egin behar izan dodaz, beste mundu bateko gauza batzuk.

—Baina ba al dagoz lurraz gain beste mundu batzuk?

—Bai, seme, badagoz. Hainbat liburutan aipatutako munduak, adibidez: Idhun, zuk hain gogoko dozun liburuko Fantasiatzko erreinua etab.

—Eta ze mundutan ibili zara zu lanean, hain zuzen ere?

—Nik neuk sortutako munduan, Iñaki. Badakizu zein dan nire izena, ezta?

—Noski, Mikel Endiribar. Baina zer ikusi dauka horrek?

—Nik sortutako munduan lan egiten egon nazala esan deusut, ezta?

—Bai.

—Nola esango zeunke Mikel ingelesez?

—Michael. Michael Ende? —galdetu eban Iñakik guztiz harriturik—Zuk idatzi dozu liburua?

—Ez, nik ez, nire birraitaitak baizik. Horregatik dozu liburu hori hain atsegin, zure odolaren zati garrantzitsu bat dalako.

—Eta amak badaki?

—Bai.

—Beraz etxera itzuliko zara?

—Bai.

Iñakik istorio ha ez eban guztiz sinetsi baina momentu horretan hori ez zan benetan garrantzizkoa. Benetan garrantzizkoa zana aita berriro etxera itzuliko zala zan eta berriro ez zala joango zin egin eutsonez Iñakiren bizitza asko hobetu zan.

ZER ARRAIO DIRA IZARRAK?

Naia Fernández Perez,
Miguel de Unamuno BHI

Astelehena, 9:00ak.
Pipipipi
—Agh, iratzargailu hau!!! Begiratuko dut lagunek zer dioten whatsappean.
—Azkar joan! Oso berandu helduko zara bestela. Eta utzi mugikorra.
—Amak.
—Ongi da.

Klasera heldutakoan, dena whatsapparen bidez:

—Klasera heldu naiz.

Pop

—Baita ni ere.

Pop

—Ba, ez zaitut ikusten

Andereño/maisuak hitz egin bitartean:

—Ipad-a aterako dut eta interneten bilatuko dut maisuak esandakoa, ez baitiot piperrik ulertu.

—Nik ere ez.

—Denak ulertu didazue? —andereño/maisuak.

—Bai! —denak batera.

Etxera heldutakoan:

—Telebista pixka bat ikusiko dut, gero, ordenagailua hartuko dut, ondoren, mugikorrarekin egongo naiz eta azkenik tabletarekin.

—Utzi ezazu teknologia guzti hori eta zoaz amama bisitatzera! —amak.

Amamaren etxean:

—Ni txikia nintzenean teilatura igotzen nintzen izarrak ikustera. Baina, gaur egungo neska-mutilek aparatu elektronikoekin obsesio handia duzue. Entzun didazu? Utzi mugikorra!

—Bai, amama, baina... Aplikazio bat dago hori egiteko “SkyView” eta ez

dugu teilatura igo beharrik!

BAINA... Egun batean dena aldatu zen. Bere aparatu elektroniko guztiak desagertu egin ziren!

—Non daude nire mugikorra, telebista, ordenagailua, ipada, ipoda, tableta, portatila, xboxa...?

—Ez dakit, atzo lo egitera joan baino lehen esan zenidan gauza arraroa gertatu zitzazula amamaren etxean. —amak.

—Egia da. Argi bat agertu zen eta nire aparatu guztiak amatatu ziren, amamak esan zidan Ama Naturaren froga zela.

Eta lasai joan zen klasera, baina ez zen konturatu ez zekiela ezer egiten bere tresnarik gabe. Horregatik... Galdu egin zen (berak beti erabiltzen zuen googlemap). Ez zekien zer ordu zen (beti erabiltzen zuen mugikorra eta ez zekien erlojuak irakurtzen). Ezin izan zuen bere lagunekin hitz egin, ez zekien taxia hartzen (app baten bidez egiten zuen beti)... Baina txarrena zen etxera heltzean ez zekiela zer egin orduan...

Amamaren etxera joatea erabaki zuen:

—Amama, tresna guztiak desagertu zaizkit, zer egin dezaket?

—Ba, abestu, dantzatu, janaria prestatu, josi, zure nebeekin jolastu, kirola egin... Eta gehien gustatzen zaidana, izarrak ikusi!

—Ongi da. Izarrak ikustera joango gara.

Izarrak ikusten ari zirenean:

—Inoiz ez dut honelako edertasunik ikusi! Bihar itzul gaitezke?

—Bai, noski!

Egun horretatik aurrera izarrak ikustera joan zen bere amonarekin. Horregatik egun batean...

Lasai zihoan etxera izarrak ikustera joateko irrikan pertsona arraro bat ikusi zuenean, lapur bat zirudien, beltzez zihoan eta poltsa handi bat zeraman, barruan zerbait distiratsua zegoen, izarrak ziruditen.

—Zer egin dezaket? —galdetu zion bere buruari. Orduan oihuka hasi zen—Lapurra! Lapurra! Lagundu! Zerbait lapurtzera doa!

Baina, inork ez zuen kasurik egiten. Denak beraien mugikorrekin zeuden eta ez zuten begirada altxatzen, zonbiak ziruditen, jausi egin arren ez zuten mugikorra uzten. Orduan ulertu zuen bere amamak esandakoa. Hala ere, jakin mina eragiten zion “lapur” horrek eta jarraitzea erabaki zuen.

Zubi baten azpitik pasatu zen, gero eskailera batzuk igo, ondoren mendi multzo batera heldu zen eta azkenik mendi altuenaren tontorreraino joan zen. Han zegoela “lapurrari” esan zion:

—Geldi hor! Zer egiten ari zara?

—Ezer ere ez —erantzun zuen “lapurrak” oso urduri.

—Badakit lapurra zarela, baina zer lapurtuko duzu hiriko mendi altuenean?

—Altxorrik boteretsuenak, izarrak!

—Izarrak? Eta zergatik?

—Oso politak eta baliotsuak dira eta gainera nahi ditudan guztiak har ditzaket, gaur-egun inork ez ditu izarrak begiratzen eta.

—Hori ez da egia! Nik nire tresnak desagertu zirenetik egunero begiratzen ditut eta hemendik aurrera egunero beste pertsona batek izarrak zer diren jakitea lortuko dut!

Hori esatean bere tresnak agertu egin ziren baina, hala ere, ez zuen amore eman eta esan zuen moduan egunero beste pertsona batek izarrak zer diren jakitea lortu zuen. Eta inoiz ez zen berriro teknologiaren zontzia izan!

HAU IRAKURTZEN DUZUEN GUZTIOI GAUZA BERA ESATEN DIZUET, EZ IZAN TEKNOLOGIAREN ZONBIAK ETA BEGIAK IREKI BESTE GAUZETARA!!!

AMETSA

Oier Ortega Tejjido,
Gabriel Aresti BHI

Nire etxera ailegatzean amak galdetu dit ea zergatik daukadan begia more. Ezer esan gabe nire logelara sartu naiz. Galtzerdi bustiak kendu ditut, neska horrek zapatak kendu dizkit eta. Neure buruari galdetu diot zergatik egiten didan hau. Nik ez diot ezer egin. Etxerako lanak egiten nengoen bitartean, nire ama logelara sartu da, eta berriro galdetu dit zergatik dudan begia more. Baina nik ez diot ezer esan. Haserretuta nire logetatik joan da ateari danbatekoa emanda.

Negarrez nago nire ohean, aurpegia malkoz bustita daukat. Bainu bat hartzea bururatu zait, eta hori egin dut. Bainugelara joan biluztu eta bainua hartu dut. Horren ostean, hobeto nago. Orduan beheko solairura jaitsi naiz. Ama haserre dago oraindik, baina nik ez diot ezer kontatu nahi, ez zait bururatzen ezer kontatzeko.

Afaldu ostean, ohera joan naiz. Arkatza eta paper bat hartu ditut eta hau idatzi dut: “Amatxo maitea, horrela ezin dut jarraitu. Barka iezadazu egin dudan guztia. Izugarri maite zaitut, agur”

Hori idatzi ostean komunera joan naiz, kutxillak hartu ditut eta eskumuturreko zainak moztu ditut. Dena itzaltzen hasi da, nire begiek bakarrik odola ikusten dute. Nire ohean izerditan esnatu naiz. Guztia amets bat izan da. Ezin dut sinetsi. Ama logelara sartu da ni esnatzera, baina ni esnatuta nago. Dena kontatu diot, den dena. Begi morearena, galtzerdiena. Dena. Ama harrituta geratu da, baina ez du ezer esan.

Eskolarako bidean neure buruan ametsa dut birak ematen. Eskolara ailegatzean, Anne ikusi dut eta berarengana korrika joan naiz. Anne makurtu egin da, eta negarrez hau esan dit: “Mesedez, ez, berriro ez”. Orain guztia ulertu dut; ni

ez ninduten jo, nik jo nuen. Berarengana hurbildu eta hauxe esan diot: “Barkatu iezadazu, ez da berriro errepikatuko. Orain badakit zer sentitzen duzun, eta ez da batere gustukoa. Barkatu”. Harrituta geratu da, baina egunak aurrera pasa ahala barkatu dit, eta orain ni ikustean ez du negar egiten, irribarre polita jartzen zaio aurpegian.

HEGAZTIEN IRAULTZA

Naroa Vigiola Unzueta,
Ikasbide HLBHIP

Elenek bere logelako leihotik begiratu zuenean zerua ilundu egin zen. Euria egingo ote zuen? Nola egingo zuen euria eguraldiko Andoni Aizpuruk esan baitzuen antizikloia egongo zela Euskal Herrian gutxienez aste oso batean? Orduan zer zen zerua estaltzen ari zena? Ene! Flamenkoak ziren! Baina nola zen posible flamenko haiek Mutrikun egotea? Elenek mugikorra hartu eta bere lagunik onenari deitu zion:

—Maider, Maider, ikusi al duzu zer ailegatzen ari den gure herrira?

—Bai, harrituta nago, baina behin entzun nuen tornado baten ondorioz horrelakoak gerta daitezkeela. Dena dela, utzi hori eta goazen kalera izugarri politak dira flamenkoak eta.

—Ondo, 10 minutu barru herriko plazan, eta jarri abisua whatsapp taldean. Handik hamar minutura han zeuden lau lagunak, herritar pila bat eta, jakina, flamenkoak.

Mutriku betidanik herri polita izan dela dudarik ez, baina eguerdi hartan kaleak arrosaz jantzita zeuden eta ikuskizuna zoragarria zen. Arazoa: zer egin hainbeste flamenkorekin? Alkatea udaletxeko balkoira atera zen eta herritarren-gana zuzendu zen; berak ere ez zekien gauza handirik, baina Ondarruko alkatearekin hitz egin zuela esan zien eta Ondarru Mutriku bezala zegoela egiaztatu zuen. Euskal Herri osoa egongo zen flamenkoz beterik?

Zoritxarrez flamenkoen edertasuna gero eta txikiagoa zen; egiten zuten zarata jasanezina bihurtzen zelako. Gainera hori ez zen arazo bakarra, bazter guztiak zikintzen ari ziren eta zaratarekin eta flamenko kaka usainarekin kalean egotea ezinezko misio bihurtzen ari zen.

Gure lagun taldeak erabaki zuen Eleneren etxera joatea telebistan berriak ikustera. Sekulako ezustea hartu zuten ikusi zutenean Donostiako La Concha hondartza loroz beterik zegoela eta Gasteizeko katedrala papagayoz josirik. Gainera hori guztia gutxi ez bazen, Bilboko Gran Via kalea ikusi zuten pelikanoz beterik. Zer zen hura? Txori tropikalen inbasioa? Ametsa? Amerikarrek filmeren bat egiten ari ziren Euskal Herrian? Zer gertatzen ari zen?

Umeek berehala ulertu zuten flamenkoak ikusterakoan sentitu zuten hasierako poza arazo handia bihurtuko zela. Telebistako irudietan suhiltzaileak eta poliziak ikusten ziren eta Euskal Herriko suhiltzaileen kapitaina bolondresak eskatzen ari zen eurei laguntzeko. Populazioari gomendio bat eman zion: etxetik ez ateratzea. Europako beste herrialde batzuetan gauza bera gertatzen ari zen eta frogak zeuden izugarri politak ziren hegazti haiek oso bortitzak bihur zitezkeela. Jakin zuten, adibidez, Britainia Handian flamenko batek hamasei urteko mutil bati burua apurtu ziola. Eta berri txarrak zetozen Frantziatik, Italiatik, Bulgariatik eta hainbat lekutatik.

“Txoritxoak” haserre zeuden nahiz eta inork ez jakin zergatik. Elenek eta Maiderrek berriro ere erakutsi beharko zuten euren balioa...

Behin batean zinemara joan zirenean ikusi zuten zientifiko ero batek makina berezi bat asmatu zuela behiekin komunikatzeko. Horrelako ideia bat martxan jarri beharko zuten.

Lehenengo eta behin Eleneren etxeko teilatura igo ziren eta handik antena parabolikoa hartu zuten; geroago Maiderren neba txikiaren animalien ahotsak imitatzen zituen jostailua hartu zuten eta play stationeko mikrofona konektatu zioten asmakizunari. Euren eta mundu osoaren sorpresarako kontaktuan jarri ziren plazan zeuden flamenkoekin.

Hegaztiek zera adierazi zuten: kokoteraino zeuden naturaren kontrako gizakien bidegabekeriak eta eskatzen zuten ekonomia handiko herrialdeen agintariek naturaren kontrako bidegabekeriak geldiaraztea edo Afrikako, Asiako, Australiako eta Amazoniako oihaneko hegazti guztiak munduko hiririk handienak okupatuko zituzten.

Orduan gure lagunek Mutrikuko alkatearekin hitz egin ondoren, txorien eskaera berehala zegoen Eusko Jaurlaritzan eta handik munduko beste herrialdeetako gobernuetara zabalduta zen.

STOP NATURAREN KONTRAKO BIDEGABEKERIEI!

2.044 KILOMETRO

Garazi Oñate Zarraga,
Solokoetxe BHI

Azken bolada honetan, errefuxiatuen gaia asko entzuten da, baina inork ez daki nolakoa den esperientzia, errefuxiatuek izan ezik, hau da, nik. Istorio honetan nire bidea nolakoa izan zen azalduko dizuet, hasieratik amaitu arte.

12 urte nituen eta arratsalde polit bat zen. Nahiz eta euritan egon, familia osoa geunden, gurasoak, hiru neba-arrebak eta ni. Bat-batean leihotik ikusi genuen gure lorategia lehertu egin zela eta geroago zeru beltzean hegazkinak agertzen hasi zirela.

Hegazkin batek bonba bat bota zuen gure etxearen gainean, baina etxea apurtu baino lehen ateratzea lortu genuen, gurasoek izan ezik. Hondakinen artean laurok gurasoak bilatzen hasi ginen baina ez zuen ezertarako balio izan, hilda aurkitu baikenituen.

Negar zotinka, herrira joan ginen eta han ikusi genuen etxe, plaza, denda eta taberna guztiak apurtuta zeudela. Jendea lurrean hilda zegoen eta bizirik zegoena besteei laguntzen saiatzen zen. Bi hilabete egon ginen zaborraren artean bizitzen eta bitartean hegazkinek gure bizitza suntsitzen zuten.

Ezin genuen jan, ezin genuen lorik egin eta beti erne egon behar genuen edozein momentutan zer edo zer gure gainean lehertu ahal zelako. Gero eta jende gehiago hiltzen zen eta herrian oso gutxi geratzen ginen. Azkenean auzokideok emigratu behar genuela gomendatu ziguten, gure egoera oso larria baitzen.

Erabakia hartu eta berehala bidea hartu genuen. Hasieratik, gure zonaldeko beste herrietako jendearekin aurkitu ginen, pertsona mordoarekin, adin guztietako jendea, besoetan eramaten zituzten ume txiki-txikietatik, zahartzarora helduta zeuden gizon emakumeetara.

Ez genekien norantz gindoazen baina gure helburua leku segurua bilatzea zen.

Jende guztiaren artean emakume oso zahar bat nabarmentzen zen. Ile zuria zuen, begi sakon, txiki eta beltzak eta oso azal ilunekoa zen, ia beltza. Aten-

tzioa eman zidan aurpegi osoa zeharkatzen zion orbain handi-handia zeukala. Nire neba-arrebei esan nien taldetik ez urruntzeko eta atsoarengana joan nintzen laguntza eskaintzera.

—Kaixo, andrea. —esan nion.

—Arratsaldeon, neska. Zer duzu?

Oso urduri nengoen, horregatik galdera pila bat egin nizkion.

—Niri ez zait ezer gertatzen, baina eskerrik asko. Eta zuri? Zer gertatzen zaizu? Zer duzu aurpegian? Laguntza behar duzu?

—Aaaaa, bai, orbaina! 1941ean gertatu zen, guda hasi zenean, nire etxea bonba batek suntsitu zuen ni barruan nengoen bitartean. Ateratzea lortu nuen baina orbain itsusi hau geratu zitzaidan aurpegian.

—Sentitzen dut —esan nion.

—Lasai, laztana. Nola duzu izena? —galdetu zidan azkenean.

—Sirish dut izena. Eta zuk? —esan nion nik ere.

—Nik, Hemany.

Momentu horretan lurra mugitzen hasi zen eta hegazkinak agertzen hasi ziren berriro. Herritar eta hiritar guztiak korrika hasi ziren oihuka eta nik, zoro baten moduan, nire anaia-arrebak bilatu nituen.

Minutu batzuk pasa eta gero, nire neba txikiena, Janaki, ikusi nuen urru-nean eta korrika batean bere bila joan nintzen beste biak berarekin zeudela pentsatzen, baina bera bakarrik zegoen, negarrez. Ingukahala neba eta Inesh ahizpa non zeuden galdetu nion, nire eskua hartu eta atsoa eta ni ilararen azkeneko aldera eraman gintuen eta hor zeuden biak, hilda, tiro banarekin.

Barruan huts handia sentitu nuen eta azkar bukatzea nahi nuen. Hala eta guztiz ere, ez dakit nondik atera nuen indarra, baina Janaki besoetan hartu eta hirurok bideari jarraitu genion. Bide osoan nebak irribarrea ahoan izaten saiatzen nintzen.

Hemany gure amama bezalakoa zen eta beti istorio entretenigarri, alai, triste, barregarriak... kontatzen zizkigun. Baina mundua ez zen beti bezalakoa. Zerua beltza zen, ez zegoen txoririk, mundu guztia triste zegoen, oinutsik ibili behar ginen gure zapatak apurtuta zeudelako eta ez zegoen janaririk.

4 hilabete ibiltzen egon eta gero, oso urrun, mendebaldean itsasoa ikusi genuen eta guztioi irribarrea atera zitzaigun. Oso nekatuta geunden, ezin genuen gehiago eta oraindik bide luzea geratzen zitzaigun.

Zaharrenak bidean geratu ziren eta, zoritxarrez, Hemanyk ere gehiago ezin zuela esan zuen:


—Ezin dut gehiago.

—Bai, etorri, gutxi geratzen da eta. Kostara helduko gara berehala, mese-dez jarraitu —esan nion negarrez.

Eta bere erantzuna hau izan zen:

—Lasai, Sirish, heriotza nire zain dago. Zure lana orain nebarekin Europara joatea da eta han bizitza hobea lortzea. Ni ondo egongo naiz, joan haiekin.

Nire nebak Hemanyri muxu handi bat eman eta elkarrekin taldearekin bildu ginen. Pertsona zaharrak jadanik ez zeudenez, abiadura arindu egin genuen eta hilabete batean heldu ginen Turkiara.



Arazo eta bortizkeria handiak aurkitu genituen. Ez nuen ezer ulertzen, ez nekien zergatik ez gintuzten sartzen uzten. Beraz, neba hartu eta itsasontzi batean sartu ginen inor konturatu gabe eta bide erdia ondo egitea lortu genuen.

Espero genuen bezala harrapatu gintuzten baina Greziara heltzea lortu genuen. Negua zen eta hotz handia egiten zuen baina gure zirrarak berotzen gintuen.

2.044 kilometro izan dira. Bidean, gurasoak, neba, ahizpa eta lagunak galdu ditugu. Geroztik, hemen gaude. Beste 5 hilabete pasatu dira. Momentu honetan kanpai denda batean bizi gara, gure antzinako hiriko familia batekin. Haiek ere bi alaba galdu dituzte. Hau da gure etxea. Hau al da gure patua? Orain ez gara inongo biztanle. Orain errefuxiatuak gara.

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



ZEIN POLITA DEN ITSADARRA

Irati Orio Lezama,
Artxandape Ikastola HLBHIP

Azken urtean egin dudan bezala, goiz esnatu naiz, kafe bero bat hartu dut, eta alkandora zuri bat jantzi dut bainujantziaren gainetik. Etxeko sarreran prest dudan motxila hartu dut, eta hondartzarantz abiatu naiz. Itsasertzetik ibiltzen hasi naiz, baina nire gorputza ez dago oraindik prest asko mugitzeko. Hori dela eta, motxilatik eskuoihala atera, eta idazten hasi naiz:

“Gizakiok dugun gauzarik hoberena, edo gauzarik hoberenetarikoa, mina jasateko dugun gaitasuna da. Pentsamenduek lau ate erakusten dizkigute gure garunean barrena, eta bakoitzak behar duen atea aukeratuko du sentitzen duen minaren arabera.

Lehenengo atea ametsena da. Ametsek mundutik ihes egiteko ezkutalekua ematen digute, baita honek eragiten digun mina ahazteko ere. Ametsek denbora nola doan aurrera zenbatzen dute, eta denbora hori eskaintzen digute gure zauriak sendatzeko. Pertsona batek zaurituta amaitzen duenean, konortea galtzen du. Eta berri txarra jasotzen duenean, zorabiatu egiten da. Horixe egiten du gure garunak minetik ihes egiteko: lehenengo atetik joaten da.

Bigarren atea ahaztea da. Zauri batzuk sakonegiak dira sendatzeko, edo azkar sendatzeko behintzat. Gainera, hainbat oroitzapen mingarriak dira, eta ez dute sendabiderik. Askotan entzun dugu denborak dena sendatzen duela, baina gezur hutsa dela ziurta dezaket. Denborak zauri gehienak senda ditzake, besteak ate honetan barrena daude ezkutatuta.

Hirugarren atea eromena da. Batzuetan, garunak hain kolpe gogorra hartzen du, non eromenean ezkutatzen den. Badakit ez duzuela onuragarri ikusiko, baina bada. Batzuetan, errealitatea, gure eguneroko bizitza, mingarria da, eta bertatik ihes egiteko, garunak errealitatea alde batera utzi behar du.

Azken atea heriotza da. Azken baliabidea. Hil ondoren, ezerk ezin digu minik eman, edo hori erakutsi digute behintzat.

Hau da azken urte honetan ikasi dudana. Hasieran, nire buruak eskatuta, lehenengo atea hartu nuen; ametsena. Barruan nuen mina askatu behar nuen, eta

zauria ez zen inoiz itxi, sendatzeko momentua iritsi arte. Nire garunaren atal handi batek funtzionatzeari utzi zion. Eta itzali egin zen, nolabait esateko.

Ezin nuen benetako mundua eta nire buruan sortutako mundua desberdindu. Zoratuta nengoela uste nuen. Baina azken momentuan, hirugarren atletik ihes egin nuen. Baina konturatu nintzen, ezin nintzela betirako bertan egon, eta momentu mingarriak, bigarren atean ezkutatu ziren; ahaztu nahi nituen, eta berriro inoiz ez gogoratu. Baina ez guztiz, ez nituen guztiak ahaztu; lausotuta zegoen leihoan barrena ikusten nuen dena. Bizi nuen guztia, bigarren atean itxi nuen giltzarrapo batekin, eta giltzarrapoa irekitzen zuen giltza, nire etxe aurrean zegoen hondartzan lurperatu nuen”.

Luma foliotik altxatu dut. Duela asko ezin nituen hainbat gauza jarraian idatzi, eta are gutxiago pentsatu. Egun ona dudala aprobetxatuz, azken urte honetan bizi izan dudana idaztea erabaki berri dut; hilabete bakoitzean nola egon naizen azalduz.

Urtarrila. Errealitateak deitu egiten ninduen, baina nire burua gorra zen, edo entzuten ez zuenaren plantak egiten zituen. Begiak irekitzea erabaki nuen, eta negarrez nengoela konturatu nintzen. Agian, ez nuen malkorik askatzen, benetan negarrez zeudenak ez zirelako nire begiak. Bularraldean indar handia nabaritzen nuen, inor maite ez nuela konturatu nintzelako. Baina ez nuen inor maite inoiz maitatu ez dudalako; ez nuen inor maite ezin nuelako inor gogoratu.

Otsaila. Otsaila nirekin egon ez balitz bezala joan zen. Nire bizitzak “pause” botoiari sakatu zion, eta pentsatzeari eta gogoratzeari ekin nion. Nire bizitza aurrera zihoan, baina borobil, karratu edo dena delako batean zebilen helmuga finkorik gabe, ez bainuen nire lekua aurkitzen mundu honetan. Orduan, nire mundu propioa sortzea erabaki nuen. Aurretik idatzitakoa errepikatzen nagoela konturatu naiz, nire burua ez baitago prest oraindik, eta ez dakit egongo den garaiz.

Martxoa. Martxoan betaurreko berriak jarri nituen, benetan ondo ikusten ez bainuen, eta orduan konturatu nintzen, aurreko hilabetearen sortutako mundua, itsuen mundutik zegoela gertuen. Batzuetan ondo dago errealitatean ez bizitzea, baina horrek deitzen zaituenean, atea ireki behar diozu, eta honekin aurrez aurre egon, horrela ikasten baituzu gogorra izaten.

Apirila ez zen oso momentu ona izan nire bizitzan. Hainbat akats egin nituen. Munduak nirekin akabatu nahi zuen, edo hori uste nuen. Askotan esan digute akats guztietatik zerbait ikasten dela. Eta egin nituen gauza guztiek gauza bera irakatsi zidaten: ez nengoela ondo.

Maiatza. Aurreko hilabetearen ikasitako gauza bakarra beti eramango dut nire sorbaldan, konturatu bainaiz nire bizitzan bizi izan dudanetik, hori dela egia bakarra. Atzean utzitako guztia, gauza handia da, hutsik dagoen gauza handia.

Ekaina. Eguzkiak gogor jotzea erabaki du, nire azal zuria erre baitu; negua nahiago izan dut beti, eguzkiak ni sortzen nauen elurra urtzea lortzen baitu. Denok dakigu elurra, urtzean, ur bihurtzen dela, eta ura gas zein izotz bilakatu daitekeela, ura izateko momentu txarretik ihes egiteko. Momentu hartan, likido egoeran nengoen, eta ez nintzen ura baino gutxiago izango. Hori dela eta, izotz bihurtzea erabaki nuen; nire bihotza izoztuz.

Uztaila. Eguzkiak oso gogor jotzen du azken bolada honetan. Jendea nire inguruan dago jolasean eta ni, haiengana hurbiltzean, ihes egiten dute nire izo-

tzezko bihotza sumatzean.

Abuztua. Abuztuan ez zen ezer gertatu, eta jada denbora ezin nuen zenbatu.

Iraila. Nire hasiera berria. Hainbat urte bizi izan ditut, eta azkenean ezagutu dut benetan nire betiko herria. Benetan maite zaitudala esan dezaket, maitia, baina ez nago ziur hori egia ote den.

Urria. Mendian galduta egoteari utzi diot, nahiz eta oraindik ez ditudan ireki begiak. Azkenean lortu dut bizitzea mundu berrian, nahiz eta ez dagoen mendirik. Nire buruan sortutako mundua ahaztea lortu dut behingoz, eta errealitatean bizi izaten hasi naiz.

Azaroa. Benetako mundua ez da hain txarra, eta azkenean konturatu naiz ni ez naizela arraro bakarra, baina banaizela oso zaharra, eta azkenean konturatu naiz zein polita den itsasadarra. Itsasadarra bizitzaren sinonimo gisa ikusten dut. Bai, oraintxe konturatu zara, bizitza polita dela esan berri dudala. Bizitzak, zein itsasadarrak, bide zabala eta luzea dute atzetik, baina bien amaiera faktore berdinek erabakitzen dute: denborak eta inguruneak.

Abendua. Azkenean heldu da. Urtea badoa, eta zure bizitzako liburuan idatzi ditzakezu gauza mordoa. Hori egiteko nuen asmoa, eta hori egiteko batu dut gogo. Oraindik ez nago guztiz ondo, baina tontakeria hutsa dela konturatu naiz.

Ez naiz inoiz ondo egongo, baina berdin zait. Nire buruarekin bizitzen ikasi dut, eta hori nahikoa da niretzat. Inoiz ezin izan dut hainbat gauza idatzi, eta are gutxiago pentsatu. Agian, ez nago hain txarto edo, agian, bai. Agian, sendatzen ari naiz edo, agian, nire buruan dagoen munduan sartzen nago berriro ere.

ISILDUTAKO HITZAK

Aintzane Alzola Aparicio,
Artxandape Ikastola HLBHIP

Txikitatik entzun izan dut zer egin, nola bizi eta zer izan behar garen. Zuek esandako guztia zuzena zela sinetsi dut beti, eta nire buruan zeuden ideiak guztiz okerrak zirela. Zenbat gau igaro ote ditudan itzarrik ezer gutxi naizela pentsatuz, eta zenbat aldiz hautsi ote izan dudana burua erantzun baten bila. Askotan pentsatu izan dut zer gertatuko litzatekeen barruan daukadan guztia aterako banu, eta behingoz suntsitzen nauen egonezin hau bukatuko balitz. Orain arte isildutako hitzak esateko ausardia izango dudana egunaren zain egon naiz, eta uste dut egun hori iritsi dela.

Ematen du bizitzan poztasuna lortzeko gizarteak finkatu dituen kanonetan sartu behar garela erabat, eta ni nekatuta nago jada. Ez naiz inoiz izan printzesak gogoko dituen neskato txintxoak, ezta panpinekin jolasten duenatarikoa ere. Janzteko gusturik ez daukat eta ez dut makillajerik erabiltzen. Ikasketetan ez naiz txarto moldatzen. Zoritarrez, zuentzat ez da nahikoa egiten dudana ahalegin guztia.

Ahizpen artean txikiena eta familiaren ustez ardi beltza naiz. Ez dut ulertzen zergatik jarraitu behar ditudan beraien pausoak. Ez dut uste hain zaila denik konturatzea ez dudala zuen modukoa izan nahi. Ez dut goizeko seietan altxatu nahi nire aurpegia kilo bat makillajez estaltzeko eta primeran konbinatzen duten arropak bilatzeko. Irribarretsu egoteko gogorik ez dudanean, ez dut aurpegi ona jarri nahi. Ez dut ezkondu nahi familia osatzeko. Gainera, ez dakit zenbat aldiz errepikatu behar dudana; nik neskak ditut gogoko! Sentitzen dudana egin nahi dut, nire burua justifikatzeko beharra izan gabe. Ez dut beldurrik eduki nahi naizena izateko eta besteek nor naizen ikusteko.

Eta ulertzen dut, nolabait, ohikoa ez den edozer kritikatzeko, ni ere aurreiritzien menpe egon bainaiz noizbait. Zaila da gauzak aldatzen ari direla onartzea, eta irakatsi dizkizueten aurka doazen pentsamenduekin bat egitea. Baina, nahi ala

nahi ez, denbora aurrera doa, eta ezin zarete iraganeko ideologia zaharkitu batera lotu, horrek min baino ez baitu ematen, ez bakarrik zuen inguruko pertsoneri, baita zuei ere.

Horregatik idazten dizuet. Ezin dut gehiago jasan familiak berak ni ez onartzea. Egunero esnatzen naizenean ikusten dut zein pozik zaudeten Usoa ahizparekin kafea hartzen duzuenean edo Maddik telefonoz deitzen duenean zuekin hitz egiteko, eta ni agertzen naizenean aurpegia aldatzen zaizue eta hitz egiteari uzten diozue. Goitik behera begiratzen didazue ezezaguna banintz bezala, eta sukalde-tik ateratzen naizenean, badakit niri buruz hitz egiten duzuela, nik ez entzunaren plantak egin arren. Ez dakit noiz sartuko zaizuen buruan ni ez naizela zuen amestetako alaba perfektua, bizitza perfektuarekin eta arrosa koloreko hodei batean biziko den hori. Familia honetan aldaketaren bat gertatzeko garaia da eta hau baino gauza hoberik ez zait bururatu.

Jarraian irakurriko duzuen lasaitasunez har dezazuen, egongelako sofa erraldoi horretan esertzea gomendatzen dizuet. Orain ez dago zereginik, beraz, har ezazue patxadaz. Banoa etxetik. Tira! Zuek hau irakurtzen duzueneko, ni ez naiz Bilbon egongo jada. Seguru nago aita amamari deitzeko altxatu dela. Esaiozu esertzeko eta emakume gaixoa bakean uzteko. Ez nago berarekin. Ez saiatu poliziari deitzen. Ondo dakizue horrek ez daukala zentzurik. 18 urte bete



berri ditut eta nahi dudana egiteko aske naiz. Jakin ezazue ondo nagoela eta ez duzuela kezkatzerik. Lana aurkitu dut eta irabazten dudana diruarekin etxeko alokairua ordaindu dezaket. Nire neska-lagunarekin biziko naiz baina ez dut uste zuek ezagutzeko aukera izango duzuenik. Ez nuke hainbeste azalpen eman behar, eta argi geldidadila, hau ez dudala zuentzat egiten, niretzat baizik.

Agian, ez naiz uste bezain ausarta eta arazoetatik ihes baino ez dut egiten. Agian, ez nago prest honelako pausua emateko. Baina bene-benetan espero

dut eskutitz honetan idatzitako guztia, behintzat, zerbaitetarako balio izana. Zuek mundua begiratzeko moduari buelta emateko eta nik ikusten ditudan gauzak zuek ere ikusteko. Ireki itzazue begiak eta zuen burua askatu gizarteak jarritako role-tatik. Ezabatu orain arte ikusi edo pentsatu duzuen guztia eta eraiki aurreiritzirik gabeko beste mundu bat.

Ez pentsa honengatik ez zaituztedala maite. Ez naiz hain hotza. Asko maite zaituztet eta badakit egin duzuen guztia nire onerako izan dela. Zin egiten dizuet erabaki hau hartzea oso gogorra egin zaidala. Tamalez, ni ez naiz guztiok espero zenuten txikitxua eta nire bidea hartzeko ordua dela uste dut.

Inoiz Bilbora bueltatzen banaiz seguru nago etxetik pasatuko naizela eta hamaika gauzaz hitz egingo dugula, zuek ni naizen moduan onartzeko prest baldin bazaudete. Saiatuko naiz noizean behin eskutitzen bat bidaltzen, ondo nagoela ziurtatzeko. Baina ez du ematen inongo arazorik edukiko dudanik, nire bizitzako lehenengo aldia baita lasaitasunez hartzen dudala arnasa, inoren menpe egon gabe. Eta ez dago aske sentitzea baino gauza ederragorik.

ITXAROPENA

Maialen Garay Benítez,
Artxandape Ikastola HLBHIP

Tik-tak, tik-tak. Erlojuaren orratzek urduritzen naute, nitaz barre egingo balute bezala, gero eta astiroago mugituz. Hiru ordu pasa dira kimioa hasi dene-tik, baina erlojua begiratu ostean, bakarrik hogeita bi minutu eta hemeretzi segundo igaro direla konturatu naiz. Tratamendu nazkagarri honen eraginpean jartzen naizen bakoitzean bezala, denbora moteldu egin da. Nire bizitzaren erdia lau horma hauen artean eman dut, sendagai miraritsu baten zain. Baina nire ho-geita hamabigarren saioaren ostean, nire itxaropenak agortu egin dira.

Nire aurrean zazpi edo zortzi urteko mutil bat dago. Gaur bere lehenengo aldia da kimioarekin eta nabaritzen da ez dagoela prestaturik, ordezeko arroparik ez baitu ekarri, eta jakina, botaka egin du, oheko izarak, bere arropa eta alboko ohean dagoen erizaina zikinduz. Orduan, beste puntako erizaina, nazkatuta, mu-tila botaka dagoen lekura abiatu da, eta trapu zahar batekin gertakari penagarri hau garbitu egin du.

Handik bost minutura, umeak berari begira nagoela ikusi du. Irribarrez, doinu altu batekin, berarekin jolastu nahi dudana galdetu dit. Zoriontasun horrek nire haurtzaroa gogorarazi dit. Nire bizitzako momentu haietan itxaropena nuen sendatzeko, eta nire adineko beste umeek bezala, bizitza normala izateko; bai-na orain badakit hori ezinezkoa dela, eta nire bizitza osoa aurpegi berberak eta aire berbera arnasten pasatuko dudala. Orduan, haserre, begirada zorrotz batekin ezezkoa eman diot, esanez:

—Ez duzu ikusten hiltzen ari naizela!

Nire barruan hitz zatar batzuk gorde ditut, ume moko honi buruz.

Bat-batean, sastada mingarria nabaritu dut orratzak ezker aldeko besoa

zeharkatu duenean, eta minari eutsi ezinik garrasi egin dut. Nire begietatik negar tanta bat erori da eskumako masaila zeharkatuz. Eskuarekin lehortu egin dut. Orduan, aurpegia motel-motel altxatu dut eta jende guztiaren begiradak nire gainean zeudela konturatu naiz. Erizainak ondo ote nagoen galdetu dit. Nik ezetz esan diot, kimioak larri uzten nauelako, baina ohituta nago tratamendu honetara.

Ordu oso bat pasa da infernu hau hasi denetik. Gelako atea ireki du neska zurbil eta burusoil batek. Segundo batzuk behar izan ditut nor den jakiteko. Hunkituta utzi nau, pasa den astean hile luzea zuelako. Bat-batean flashback bat izan dut. Neure burua ilea orrazten ikusi dut. Momentu honetan ilea edukitzea ezinezkoa da, baina hori ez zait inporta, nahi dudana bakarra osasuntsu egotea da.

Alboko ohean dagoen neska eta bere ama hitz egiten daude. Neskak urte osoa pasatu du ospitale honetan. Amak besarkatu egin du bere bizitzako urterik txarrena bizi duelako. Eta bere alabarentzat hoberena nahi duelako, gainera, hurrengo astean bere urtebetetzea izango da eta festa handia antolatuko dio. Bere lagunak eta familia guztia etorriko dira egun garrantzitsu hori ospatzera.

Tristuraz betetzen nau nire bizitzako parte handi bat galtzen ari naizela pentsatzeak, baina espero dut etorkizun hurbil batean galdu dudana denbora berreskuratzea eta probetxuzkoa izatea.

Kimioa ez da momentu honetan ikaratzen nauen gauza bakarra. Pasa den astean, medikuak gurasoei esan zien nitaz hitz egin nahi ziela. Egoera honek asko



urduritzen nau, urdaila nahasten zait eta izerdiz bustita nago. Gainera, nire amak ez dit asko laguntzen, ordu oro gogorarazten didalako.

Atea zabaldu egin da. Hortxe dago. Aste osoan ikaratu nauen momentua

heldu da. Beldurrez beteta nago, medikuak nire gurasoei deitu die eta gelako izkina batera joan dira hitz egitera. Egoera honek haserretzen nau ezin dudalako elkarrizketaren hitzik entzun.

Ordu laurden geroago nire ama negarrez hurbildu zait eta medikuak esan dien guztia kontatu dit. Medikuak esan du ia guztiz sendatuta nagoela, eta hiru egun barru etxera bueltatuko naizela. Nire gurasoek negar egiten duten bitartean besarkatu eta asko maite nautela esan didate. Ezin dut sinetsi, munduko pertsonarik zoriontsuena sentitzen naiz, eta orain, lehen ez nuen gauza bat dut: itxaropena.

NIRE ISTORIOA

Lorena Gonzalez Martinez,
Ikasbide HLBHIP

Kaixo:
Nire izena Amaia da eta 32 urte ditut. Txikitan Irunen bizi nintzen. Orain, aldiz, Donostiara mugitu naiz familia eta lana dela eta. Baina gaur ez dut nire gaurko bizitzari buruz hitz egingo, baizik eta txikitan gertatu zitzaidanari buruz. Nire haurtzaroa ez zen maitagarrien kontua izan. Nik sei urte bakarrik nituenean hasi zen sufrimendua. Askotan, ni eta nire gurasoak izeba eta osabaren etxera joaten ginen. Ni hasieran oso pozik joaten nintzen, baina Danielek dena pikutara eramane zuen. Daniel nire lehengusua da, eta gauza horiek hasi zirenean 16 urte zituen, nik baino 10 urte gehiago.

Hau kontatzea ez da erraza. Daniel hasieran oso jatorra zen. Lagundu egiten zidan eta zaindu egiten ninduen. Elkarrekin egoten ginen denbora luzez eta niri hasieran ez zitzaidan inporta.

Hala ere, egun batean bere logelara joateko esan zidan. Nik pentsatu nuen jolasteko izango zela beti bezala, baina egun hartan ez zen horrela izan. Gauza txarrak egitera behartu ninduen. Ez dut xehetasunetan sartu nahi, baina nitaz abusatu zuen.

Egun hori nire bizitzako egunik txarrena izan zen. Ordutik aurrera ez naiz izan neska bera.

Gainera, egoera hori errepikatzen zen haien etxera joaten ginen egun guztietan. Danielen gurasoek ez zekiten ezer, ezta nireek ere. Beti esaten zidaten lehengusuarekin joateko eta nik ez nuen nahi, baina azkenean joan behar izaten nuen.

Hasieran Danielek play-ra jolasten zuen edo ordenagailuarekin nabigatzen egoten zen. Bat-batean, bere ohean etzaten zen eta niri gauza desatseginak egiteko esaten zidan.

Gauzak horrela jarraitu zuten eta egun batean Danielek neska bat ezagutu zuen, bere neska-laguna bihurtu zena. Maider. Hori jakitean, itxaropena eduki nuen pentsatu nuelako ez zuela nitaz gehiago abusatuko. Ez zen horrela izan, or-

dea. Neska-laguna izan arren, ez zen gelditu. Daniel Mainerrekin egoten zen, eta hura joaten zenean, nirekin jarraitzen zuen.

Kokotaraino nengoen eta esan nion gelditzeko, ezin nuelako gehiago jasan. Ez zitzaidan gustatzen bere etxera joatea eta askoz gutxiago bere logelara. Esan nion, egun horretan amaituko zela, ez niola abusu sexual gehiago jasango. Orduan Daniel gelditu egin zen.

Nire nerabezaroa ez zen erraza izan. Aldaketa emozional oso gogorrak bizi izan nituen eta inork ez zuen ulertzen zergatik. Egun batean, nire amarekin asko eztabaidatu nuen, egoera hura ezin nuelako gehiago jasan eta esplotatu egin nuen, ia konturatu gabe guztia kontatu nion.

Kontatu eta gero lasaiago geratu nintzen. Nire ama harrituta zegoen, ezin zuen sinestu eta negarrez hasi zen. Barkamena eskatu zidan ez zelako konturatu eta nire aitari egoera kontatu behar niola esan zidan. Nire gurasoak guztiaz enteratu ondoren, Danielekin hitz egitea erabaki zuten. Bere lanera joan ziren, eta atera zenean esan zioten kafe bat hartu nahi zutela berarekin. Lehengusuak konfesatu zuen eta esan zuen ez zuela pentsatzen hainbeste hunkitu ahal ninduela. Hala ere, inoiz ez dit barkamenik eskatu eta oraindik itxaroten nago. Nik ez nuen inoiz salatu eta damutzen naiz, baina egoera horretan zaudenean oso zaila da eta ez duzu egiten.

Oraindik kostatzen zait sexu-harremanak edukitzea. Orain ulertu dut inoiz ez zarela guztiz sendatzen, baizik eta honekin bizitzen ikasten duzula. Nire esperientziarekin beste pertsona batzuk, beste neska batzuk lagundu nahi ditut, inork ez duelako merezi abusurik jasatea. Egoera hauek oraindik ere gertatzen dira, gutxien pentsatzen duzun momentuan, gutxien pentsatzen duzun moduan eta gutxien pentsatzen duzun pertsonarekin.

BERANDU OTE DA?

Nerea Sobrino Alonso,
Artxandape, Ikastola HLBHIP

2095 urtea hasi berri da eta orain arte ezagutu dugun mundua aldatzear dago. Laster, gure gizartean eragin handia izango duen iraultza gertatuko da, hirugarren mundu-guda.

Teknologiaren garapenak talka egin du gaur egungo bizimoduarekin eta ondorioz, haren kontrako mugimendua sortu da. “Guda” izena eduki arren, ez da konfrontazio armatua, teknologiarekin edo hau gabe, bizi nahi dutenen arteko gatazka baizik. Konturatu gabe, makinen morroi bihurtu dira pertsonak; sare sozialei itsatsirik; klase emateko orduan ordenagailuek liburuak ordezkatzuz; leku batetik bestera autoz; ikastolara joan beharrean klaseak etxetik jasoz Interneten bidez; lantegietan makinak dira langile bakarrak ...

Bi ideologia desberdin hauen arteko elkarbizitza ia ezinezkoa dela ikusita, neurri gogor bat ezarriko da. Mundua bitan bananduko da. Alde batetik, inolako teknologiarik gabe biziko direnak. Bestetik, egunero teknologia erabiltzen bizi nahi dutenak. Erabaki honen aurrean, 16 urtetik gorako biztanle guztiek bietako zein mundutan bizi nahi duten erabakitzeko eskubidea dute.

Istorio hau hirugarren pertsonan entzuteak testuinguruan jartzen laguntzen duen arren, egungo egoera ulertzeko, lehenengo pertsonan bizi izan duen norbaitek kontatzea mereziko luke.

“Kaixo, Maddi dut izena eta aurten 16 urte beteko ditut. Orain arte kaos bat izan den munduan bizi izan naiz. Teknologiaren erreboluzioak bete-betean harrapatu ninduen eta, ondorioz, ez dut honelakoa ez den mundurik inoiz ezagutu. Internet, mugikorra eta nire adineko neska batek behar dituen aparatuak beharrezkoak ditudala barneratuta daukat. Hala ere, hauteskundeak hurbiltzean teknologiarik gabeko munduan bizitzearen ideia ez zait batere txarra iruditzen.

Egun batean, nire gurasoekin afaltzen nengoela aitak hauteskundeei buruz hitz egin behar genuela esan zidan. Nire gurasoek tresna elektronikorik gabeko mundu batean bizi nahi zutenez, txikitatik pentsatuta neukan hori zela ideiarik egokiena. Hortaz, nire aitak gaiari buruz galdetzean nire erantzuna oso argia izan zen. Hala eta guztiz ere, gau hartan ohera joatean amets sakon bat izan nuen.

“Udako egun eguzkitsua zen, baina hondartzara joan beharrean, zeruan

proiektaturiko film bat ikusi genuen, bakoitzak berea, nirea film erromantiko polit bat zen. Etxera heldu nintzenean, jateko ordua zen eta nire errobotak janaria prest zuen jada. Janari hura txikitan joaten nintzen jatetxe batekoaren antzekoa zen eta bazkaltzen nuen bitartean, nire bizitzako unerik politenak sukaldeko horma holografiakoan agertzen hasi ziren. Arratsalde hartan, nire lagun baten urtebete-tzea ospatu genuen hegazkin-limusina batean. Bertan, nire lagun guztiak zeuden, primeran igaro genuen arratsaldea. Gauean etxera heldu nintzen, aldagelan sartu eta nire errobotak pijama bero eta garbia ekarri ostean, arropa zikina eman nion garbitzeko. Ohean nengoela afari goxo-goxoa ekarri zidan eta afaltzen nuen bitartean beste errobot batek liburu bat irakurri zidan.”

Esnatzean, hauteskunde eguna zen. Nire arroparik dotoreenak jantzi, eta nire gurasoekin batera hiriko udaletxera abiatu nintzen. Bertan, nire gurasoak agurtu eta nire kabuz joan nintzen, aurreko gauen izandako ametsean pentsatu behar nuelako. Nire ideiak ez zeuden hain argi, bizitza errobot eta makinaz beteriko munduan errazagoa zirudielako. Bozkatzeko gelara heltzean nire adineko neska bat ikusi nuen. Niregana hurbildu eta bere burua aurkeztu zuen:

—Kaixo, Nim dut izena eta zuk?

—Ni Maddi naiz

—Oso urduri nago, baina oso argi dut nora joan nahi dudana.

—Nik egia esan, ez dakit zein mundutara joan nahi dudana. Duela egun batzuk teknologiarik gabeko mundura joan nahi nuela pentsatzen nuen, baina orain ez nago guztiz ziur.

—Teknologiaren kontra? Kontrara joatea zoramena da!

—Zergatik? Bertan bizitza askoz libreagoa dela diote.

—Maddi, teknologiarik gabe bizitzea nolakoa den pentsatzeko gai zara? Historiako klaseetako bizitzaren modukoa da, mugikorrik eta sare sozialik ez edukitzeaz aparte, egunero erabiltzen ditugun beste pilo bat tresna ere kenduko zizkizuten, hala nola, garbigailua, txigorgailua, plater-garbigailua, mikrouhina eta labea ere bai!

—Ez dut horretan pentsatu egia esan.

—Entzun, zergatik ez zatoz nire mundu teknologikora? Elkarrekin egongo ginateke, bai, badakit duela oso gutxi ezagutzen dugula elkar, baina ziur nago oso lagun onak izango garela. Gainera, bertan bizitza oso polita eta erraza da, nahi duzuna izan zaitezke eta urte batzuk barru ilargira joateko bidaia espazialak hasiko dituztela entzun dut.

—Baina nire familiaz bananduko nintzateke.

—Ez zara bizitza osoan zehar zure familiarekin egongo eta gainera zure patua aukeratzen ari zara, zurea, ez zure familiarena. Uste dut zeure buruaz pixka bat gehiago pentsatu beharko zenukeela.

Bost minuturen ostean guztiz beltzez jantzita zegoen gizon bizardun batek nire izena irakurri zuen. Berarekin eramanez ninduen korridore ilun batzuetatik eta azkenik gela argitsu eta zuri batera heldu ginen. Bertan, emakume gazte bat zegoen, 20 urte inguru zituela zirudien. Jarraian, gizon bizarduna gelatik atera zen eta atea itxi zuen. Ondoren, emakumeak esertzeko esan zidan buruarekin keinu bat eginez.

—Maddi da zure izena, ezta?

—Bai...

—Ondo, Maddi, suposatzen dut badakizula orain hartuko duzun erabakia hemendik aurrera zure bizitza osoan biziko zaren lekua dela, ezta?

—Bai, badakit.

—Primeran, beste aldekoekin harremanetan jartzea edo beste aldera joaten saiatzea ere guztiz debekatuta dagoela gogoratu behar dizut. Horrekin ados egon ala ez legea da eta bete beharko duzu, orduan, zein da zure aukera, Maddi?

—Ba... Zera... Teknologiaren munduan bizi nahi dut.

—Ziur zaude?

—Bai, guztiz.

—Oso ondo. Espero dut hemendik aurrera bizitza zoriontsua izatea, hau zure identifikazio txartela izango da.

Andereak nire argazkia zuen txartela eman zidan. Goian, letra oso handietan “TEKNOLOGIAREN MUNDUKO BIZTANLEA” irakur zitekeen. Ondoren, ate bat seinalatu zidan. Bertatik irtetea, gizon bizardunaren oso antzekoa zen beste gizon batek kristalezko gela batera eramanez. Han, nire mundu berera zetozen hainbat gazte zeuden. Bat-batean, nire poltsikoan neraman mugikorra dardarka hasi zen.



—Bai? —erantzun nuen.

—Maitea, ama naiz, nolatan ez zara oraindik atera? Hemendik aurrera teknologiaz libre dagoen mundu batean egongo zara, ez ahal zaude pozik?

—Ama, ez dut hori aukeratu. Asko sentitzen dut, baina nire etorkizuna da eta ez dut teknologiarik gabeko mundu batean igaro nahi. Zuen falta handia izango dut baina oso erabaki garrantzitsua da eta pozik bizi nahi dut nire bizitza.

—Lasai, maitea, zu pozik baldin bazaude, gu ere pozik gaude. Orain eskegi beharko dut, jakingo duzunez, legea kanpo dago harremanetan jartzea. Zaindu zaitez, maite zaitugu.

—Nik ere maite zaituztet!

Amak eskegi ostean Nim ikusi nuen gelan sartzen, irribarre handi xamarra zuen aurpegian.

—Maddi! Lortu dugu! Primerako bizitza edukiko dugu orain! Ez al da sinetuzina?

—Bai, Nim! Goazen ba hegazkin barrura, bestela bidaia hori egiteko aukera galduko dugu eta!

Eta irribarre handi batekin Nim eta biok gure etorkizunerantz abiatu ginen. Zaila izango zen, bai, baina elkarrekin geunden edozertarako.

Beharbada ez gara 2095ean bizi edo ez gaude hirugarren mundu-gerratearen zorian...Baina, ez al dago gure esku bizitzan teknologiari eman nahi diogun garrantzia erabakitzea? Agian, erabaki hori hartzeko ordua heldu da, berandu izan baino lehen.

AURKIBIDEA

Alkatearen agurra.....	3
Sariak.....	4

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Kolore gabeko ostadarra.....	9
• Kolorerik gabeko mundua.....	11
• Beñat kontramutiko sinesgogorra.....	14
• Arkatz magikoa.....	17
• Untxia eta zizarea.....	19
• Martera joan zen zientzialaria.....	21

B kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

• Nire txikitako abentura.....	25
• Pozik bizi naiz!.....	29
• Aitor nire laguna? Nola ez!.....	31
• Sentimenduak txotxongiloekin.....	33
• Amets harrigarria.....	35
• Garaziren sekretua.....	38

C kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

• Bizitza berria.....	43
• Ezinezkotasunera bidaia.....	48
• Zer arraio dira izarrak?.....	53
• Ametsa.....	56
• Hegaztien iraultza.....	58
• 2.044 kilometro.....,	60

D kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Zein polita den itsasadarra.....	67
• Isildutako hitzak.....	70
• Itxaropena.....	73
• Nire istorioa.....	76
• Berandu ote da?.....	78



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO